



# TEOLOGILARIEN YARDUNAK





ESPAÑI'AN: 10 Laurleko

ONGILLEAK: 20 »»

ATZERRIAN: 15 »»

# YAKIN

( PRO MANUSCRIPTO )

9 gna. A R A N T Z A Z U'n - Pazkoaldikoa. 1959

A  
G  
V  
R

Aloña maldan beera,  
ba-datorkigu Udaberria, dar-  
darti... argizko dizdiz...  
izarren antzera. Elur otza,  
odei-negar xuri, mendian go-  
ra, Aizkorriko puntaren pun-  
tatic agurka dugu.

Ibarretan erreka-  
toak, arri koxkor artean ber-  
tsolari. Zugaitz adar kulunka-  
larietan ainbat piko zuri-beltz  
-ori, kantari.

Udaberri, bizitz  
berri!

Eta Udaberrian... YAKIN, maite-malko antzo, zaar-berriak besarkatu naiean, agurka, ongi-etorrika!

YAKIN urduri da. Eraikilleak ba-dijoaz. Lemazain berriak etorri. Baiña orok, lur berri biltzaille izanik, amets bat dute lagun: euskera gurea, oraindik ezezagun ditun bidetxigorak zear eraman. Abenda kezkak lur berriak nai ditu, lar egona baita lurrari, lur berdiñari, olerki lurrari, itsatsia.

Bide oiek zear ibiltzeko ainbat neke ta lorrez sortutako maitea, ukiturik dago bere eraikillei agur egin bearrean.

Jainkoaren naiari belaunikaturik, ordea, biotzez dagie agur! Ezin izan du ordea, bere samiña barruan gorde eta malko dizdiratsuak labandu zaizkio begi nabarrak beera.

-AGUR! dasaie, baiña jarraituko duzute ene saillak jorratzen?


Ots gor-bigun batek ebaki du galderaren ixilla, eta laztan luze batek erantzunaren BAIETZA ezilkortu.

Bai, jarraituko dute; beren biotz sukarrak sortutako maitea ezingo dute aaztu. Ez dira, ezin izan orren dollor. Ez, berekin, beren biotzean ondo gordea eramango dute YAKIN euren maitea.

AGUR! Bastarrika tar Iñaki, Mendizabal'dar Fernando eta Bereziartua'tar Iñaki.

Zuen neke ta lorren igali mardulak, bere bederatzigarren jaiotza eskeintzen dizue iraupenaren itxaropen. On ar ezazute ta jarraian ederrik egiten Jaunaren maastian.

Agur! Milla esker!



TEOLOGi-  
FILOSOFi-  
SÄILLA

# JESVS, "BIZITZA", JON DONEAREN IRITZIZ

Jon ebanjelariak sakontasun utsezko aleak darabilzki esku artean... Ez da trebeegia izketa-takuan: bost ajola zaizkio esakera ederrren apainduri azalkoiak. Baiña izkera murriz eta zirtzil antzean bada ere, egi biribil, jatorrak jaulkitzen ditu. Oso mutilla da egi kontuan.

Begiko zaio gaiñera, irudi jantzizko dizdira-arte. Jesus'en jainkotasuna azaltzearren antolatu zuan Ebanjelio arrigarriak irudizko kutsu ori darama soñean.

Bi dira Ebanjelio onen irudi eskukoen eta erabillienak; Jesus Jainkoaren eginbearrezko nortasuna ixpillu legez artzen dutenak. Illunezko leize ondogabea ta eriotzaren laterri penagarria derizkio Jon'i mundu xastar au. Jesus, berriz, illundegi ori argitzera datorren argi diztikor, leiñurutsua ta eriotz-jaurerriari bizi berri, gordiñezko txertua erantsitzera datorren Salbatzaillea. "Beragan biziña zan eta biziña gizargia zan ta argia illunetan ageri da"(Jon.I,4-5).

Jesu "BIZITZA", dalako irudia aztertuko dut nik al bait laburren, Jon'en burutapen sekonai jarraituaz.

JESUS'EN BIZITZA KAINKO-BIZITZA.

"Bizi-

a" aitatu bakarrak dardarizu polita ematen dio gure adimen ariñari. Diran guztiak bizitzaren ez-pal ta txirbil dira. Baita gu ere...

Baiño zer da bizia edo nundik dator? Bizitzaren zer-dana azaltzeko gai ez izanarren, danok dakigu bere berri. Ba-dakigu, izatearen t txoko beroenean daramagun bizitza-txinpartak e-ragiten digula eginkizun guztietan. Ba-dakigu, gu-rearen antzeko bizitza duten izakiz inguratuta bizi gerala.

Nundikoa ote bizitza miresgarria?

Bizitzaren aztarna sendoa darama mundu-ak; bere besoetan dijoa...Ez da ordea, bizitza o-ri ziza baten legera-edo azaldua. Bizitza onen oiñarria lurrean jartzea, munduaren neurritasunak zearo debekatzen digu. Bestea baar bere iturri e-gizkoa: JAINKOA.

Jainkoaren bizitza ezin diteke izan iño-ren iturrian betetako ontzia. Beragan dauka itu-rien iturri agorkaitza ta bizitza utsa da izatez. Agustin Donea lau orritan gelditzen da bizitza oni begira: "...Gordeenik agerikoena, egonean e-zin idukia, aldaeziña eta oro aldatzen duzuna; beiñere ez berri, beiñere ez zaar, guzia berritzaile; beti jardunean, beti geldi; gaberik ez beiñere..." ( Aitorkizunak I, IV, 4 ).

Jainkoa bizitza utsa ta bizitz-iturri... Baiño, JESUS? "Aitak beragan bizia dun bezela, SEMEari ere bizia beragan izatea eman dio". (Jon. V,26). Jesus Irutasun Santuaren bigarren notiña danez, bizitza osoaren iturri da ta bizitza utsa Jainkoa bera bezela. Ori erakusten digu Jon Eban-jelariak, SEMEA Aitaren mailla berdiñean jartzean ta, Aitari antzo bizitza beragan izatea dagokiola aitortzean. Orregatik Kuiril santuak ere: "SEMEA bizitza da izatez, bizi dan Aitagandik sortua baita".

Jesus, Jainkoa dan ezkerro, Jainko-bizit-zaren "zer-tasun" guxtien jabe da. Bere bizitza asiera ta azken gabea, ertz ta neurri gabea da, Jainkotasuna bera asiera ta neurrigabea dan giñoan. Beti izan da, "bizitza beragan zan", (Jon. I,4).

ta betiraunde osoan ez da agortuko. Ez da alare alperkeri otza, baizik egite etengabea.

Gaiñera ba-du bizitza orrek alderdi samur bat: Bere ixuribearra. Bere-berezkoa du JESUS-JAINKOAGANDIK gaiñez eginda sorkarietaraino jextea. Eta ortan duala dirudi atsegin betea, beraxek gogoratzen baitigu: "Piztea ta bizitza ni naiz". (Jon XI, 25). "Bidea, egia ta bizia ni naiz" (Jon XIV, 6). JESUS-JAINKOAREN "emanbear" onek esanarazten dio Agustin deunari: "Jateko gai ez nintzan janaria ark nasten du aragiz -Itza aragia egin baita- gauza guztien Egille dan zugurtasuna gure aur-bular izan dedin". (Aitorkizunak VII, XVIII, 24).

Lerro batean dana aitortzeko, Jesusen BIZITZA, JAINKO-BIZITZA da.

### JESUS, GIZADIAREN BIZITZ.

Jesus-Jainkoa gauza guztien bizitz-iturri bada, batez ere gizadiaren bizitz-iturri bear, ortarako egin baizan gizon. Etzuan berak zoriontsu izateko auzoan ate-joka ibilli bearrik. Guk ordea, bizitza egokiago baten premi astuna generaman sorbalda gaiñean eta Adan ek galdutakoaren leitasun urduria anima barrenean.

Bizitza ori eskeintzera etorri zan bere Aitak aginduta. "Bidali naun Aitak agindu dit zer esan ta zer azaldu bear dutan. Ta bada- kit aren agindua betiko bizitza dala" (Jon XII, 50). Berak egin ginduzan egizko bizitza bakararren erdikide. Berak erantsi zion gizadi zigortuari bizi berria.

Ordutik, Jon deunak erakusten digunez, Kristoren ezaupidean dago betiko bizitzaren oinarria: "Betiko bizitza, berriz, au da: Jainko ziña bakarra zeran ori ta bidali duzun Jesukristo ezagutzea" (Jon XVII, 3). Ortik Jesus-Jainkoa onartu bearra, betiko bizitza miresgarriaren maister izan nai badugu. Ez dago beste eskupeko bide ezkuturik edo gezur-estrata legekoric...

Judutarrak izan ziran lenengoz bizitzaren iturri bizi au -Jesus- zapuztuaz, beti-



ko bizitza liburu santuetako zirriborro utsetan zeukatela uste izan zutenak. Eta Jesusek judutar itxuen kaska gogorkerieri arpegia emanaz, kolpe batean ausi zituan iritzi orren txotxazko esiak, BERA zala bizitza iturri bakarra erakutsiez: "Idaztiak aztertu itzazute, betiko bizitza oietan daukazutela uste duzuten ezkerro; auek dira Nitzaz aitor dagitenak. Zuek, berriz, ez duzute nigana jo nai bizitza izateko" (Jon V, 39-40).

Gaurko mundua ere zilipurdika lotsaga-bean dabil bizitza dala-ta. Inoiz ez bezelako arriskuan ikusten du berea; amildegian ari bate-tik zintzilik bezela. Ta bere biziko larritasun-ean, bizitzaren ziurtasuna lemaioken bidearen billa dabil. Baiña gezurraren lepoz dabil ta e-giari -Jesus-Jainkoari- bizkarra emanaz edozein tankerako bide xigorrari eltzen dio itsumustu gogorrean.

Orregatik, gaurkoak ere ba-dira, Jon Ebanjelariak Jesusen agoan jartzen dituan itzak: "Bidea, egia ta bizia ni naiz" (Jon XIV, 6). Jainko altsuaren naiez Jesus da gure bide bakarra; gure biotza ase lezaken egi mamitsu, sakona; gu-re animen betegarritzko bizitza sendo ta betikoa. Gizadiak betiko bizitzaren iturritik edan nai ba-du, Jesusengana urreratu bearrean dago, bere Sal-batzailletasuna biotzez onartuaz ta bere aginduz-ko bideari elduaz. "Niz esan dizkitzuetan itzak gogo ta bizitza dira" (Jon VI, 63).

a) Siñismenaren bitartez.

Esana dago, Jesus dala gizadiaren bizitza. Baiña alezkoa ote, Jesus-Jainkoaren bizia gure izate lurkoi ta kax-karrari txertatzea? Edo nola aldatu "betiko bizi-tza" ori gure animaren eskuetara?

Bi bide daude bizitza orren jabe geldi-tzeko: Kristogan siñistea ta bere aragi-odolak artzea.

Siñismenaren bitartez, Jesus-Jainkoa gure bizitz biurtzen da. "Izan ere, Jainkoak gi-zaldia orrenbeste maite duala-ta, bere SEME ba-karra eman dio, Aren siñistea izanik gai ez de-din; guziek ordea, betiko bizitza ezaten" (Jon

III, 15-16).

Betiko bizitza zoriontsura du joera gure izateak, ez baidu asetzen lur ontako uskeri-pilla geldoak. Samiñezko pipiak jota daramagu biotza ta zerura begiratzen du intziritstu. Eskuar-tean aitzen, urtzen ari zaigun bizitza maltzur onek, betikoaren miñetan uzten gaitu. Arima eder baten gordeleku gerala jakiteak, itxaropen magalera jaurtitzen gaitu.

Siñismena datorkigu azkenik, itxaropen ori ermotzera. Kristogan jartzen dan siñismen gartsuak, Jesus-Jainko altsuaren iturriko ura gure animetara abiarazten du, leiatsu opa dugun betiko bizitzari asiera emanaz. Ziur gaude -Jon deunak bein eta berriz esaten baitigu- siñismenak betiko bizitzaren eskubidetasuna damaigula ta siñismen-ezak ago bete ortzakin uzten gaitula. "SEMEAREN siñistea daukanak betiko bizitza dauka; baiña SEMEAREN siñisterik ez daukanak ez du betiko bizitzarik ikusiko" (Jon III, 36).

Eriotzaren atzaparretako ondakiña irudititu zitzaion Jon Ebanjeliari mundu au, Adan'en pekatu ondoren. Jesus, berriz, edo Jesusen siñistea, eriotzaren atzaparretan bertan, bizitza ez-ilkorra ernearazten duen zerutar intza ta pekatuaren esi illuna jo ta birrintzen duan argi dizdira. "Nere itzaren aditzaille danak betiko bizia du, ta eriotzatik bizitzara aldatzen da" (Jon V, 24).

Gaurko egunean mundura baletor, ez luke bere irizpidea tanta batean aldatuko Jon deunak. Ziur asko lengo Ebanjelioa eskeiñiko lioke itzez-itz gizadieri, bizitza egizko ta bakarra Kristori siñistean dagola gogoratuaz.

Aita Betikoak ere Jesus eskeintzen digu salbabide, gure izateak gogomin duan bizitza eder ortara irizteko: "Au da nere Aitaren gogoa: SEMEA ikusi ta aren siñistea dutenak betiko bizitza izatea" (Jon VI, 40).

Ez da zeru urdiñean, ez da munduko bazter zirrikuetan beste aukerako biderik. Eriotzaren mirabetza zapuztuaz bizitza betearen jaurrerian sartzeko, nai ta nai ez siñismen lokarriak

estutu bearrean gaude, Jesus-Jainkoari uste itxaropentsuakin begiratuaz. Siñismenak ernearazten du gure barnean esker donetzaille arrigarria ta esker donetzaille orren bitartez, Jainkozko bizitza baten erdikide egiten gera. Kristok asierarazten gaitu betiko bizitza aogozatzen. Berari dagokio betiko bizitzaren betetasun osoraiño gizona jasotzea ere. "Siñistu zaidana, il izan da ere biziko da; ta siñistu zaidala bizi dana ezta betidaiñokakoan ilko." (Jon XI, 25).

b) Bere odol-aragiak artuaz.

Gorputza janariz bizi dan bezela, anima ere janariz bizi da. Bata ta bestea auleri amorratuak ondatuzko lituzke janarituko ezpalira. Animaren janaririk indargarriena Kristoren gorpuz-odolak dira...

Kristoren gorputz ta odol santuak, bizitzaren osotasun zearokoa lemaioke animari. Eta ez une, ordu edo urte batzuetarako bakarrik. Betikotasun guztirako. Orregatik Jesusek berak ots egiten digu, uskeriak uxatuaz betiko bizia damai-gun janariaren billa: "Etzaitetze nekatu aitzen dan ogiaren atzetik, ekin ordea betiko bizitzaraiño dirauken ogi billa" (Jon VI, 27). "Zerutik jexti ta gizakiari bizia damaiona, Jainkoaren ogia da" (Jon VI, 33).

Gezurra badirudi ere ezin egiagoa da, Kristo'ren gorputz-odolak gure animaren janariak dirala. "Neure aragia janari da ziñez eta nere odola edari da ziñez" (Jon VI, 55).

Gaiñera gorputza janariarekin bat egiten dan antzera, anima ere Kristo'rekin bat egiten da, janaritzat artzean. Baiña Kristo'ren gorputz-odolak ez dira gure izatean biurtzen. Gu gera Kristo'renean biurtzen geranak, ur tanta bat ardotan "ardo" biurtzen dan bezela. Bi argizari pusketa edo su-egur alkartzen diran legean, alkartzen gera gu ere Kristo'rekin eta bere atal bizi biurtzen, bere arnasarekin biziaz: "Ez naiz ni bizi, Kristo bizi da nigan", Pauli Apostoluak liokenez (Gal II, 20).

Jaunartzearen bitartez Kristo'rekin alkartzen geranean, Kristo'k eta guk ez dugu gor-

putz arrigarri bat baizik. Buru dugu ta zoinki gaitu. Buru da, atal gera. Beraz, Kristo'ren gorputz-odolak artzea, bere biziaren iturritik edatea da; edo obetoago esateko, bizitza bakar bat moldatzea Kristo'ren eta gure biziarekin...

Jon deuna ez da nekatzen gai ontan. Irudi batekin eta bestekin beti bizitz-iturri bezela azaltzen digu Jesus: "Ni matsondoa naiz, zuek kimuak zerate" (Jon XV, 5). Ba-du onek bere mamia. Kimuak-eta... matsondoaren indarretik bizi omen dira. Gu ere Kristo'ren atal eta kimu geran ezkerro, Kristo'ren bizimenetik bizi gera... Eta bizi ori gure animaren izate barrura aldatzeko, ez dago Kristo'ren gorputz-odolekiko alkartasun ertsia baiño bide zuzenagorik. "Jesus'en gorputz deuna Jainkoaren Itzarekin batuta dagoalako bizi-emaillea da ta guk Jesus'en gorputza gugan artzen dugunean, bizitza gugan daukagu, arekin alkartzen geralako" (Kuiril santuak).

Areago oraindik: Jaunartzeak gure gorputza pizkunde zoriontsurako gai egiten du. Jaunartzerakoan Jesus gurekin alkartzean betiko bizitzaren azia ereiten du gure baitan, Ireneo Santuak dionez. Jaunartzeak, orain Jesus'en biziarekin biziartzen gaitun bezela, betiko ere eskubide ori damaigu. "Nere aragia jan eta nere odola edaten duanak betiko bizitza du ta neronek piztuko dut azken egunean" (Jon VI, 56).

## JESUS GORPUTZ ETA ANIMEN BIZITZA.

Jesus-

Jainkoa ez da animaren bizitza bakarrik. Gorputzarena ere bai. Animaren bizitza, esker donetzaille ta bere aragi-odol jainkozkoen bidez. Gorputzarena, gauza guztien bizitz-iturri dan legean, herak eusten baldio eze-reztasun leize itxuan erori ez dedin...

Gaiñera Kristo, "betiko bizitz" ere ba-da gorputzarentzat eta animarentzat. Anima berez illezkorra da baiño Jesus-Jainkoak lemaioke betiko bizitza zoriontsua, lur ontan esker donetzaillearen bitartez asten duan Jainko bizi-

tzaren betetasun erabatekoa.

Gorputza berez ustelkorra. Ala ere eman dezaioke Jesus'ek betiko iraupena: "Aitak illak eraiki ta pizten dituan bezela, SEMEAK ere nai ditunak pizten ditu" (Jon V, 21). Bizitza gainezka genezan etorri zan gure arteara eta gure eriotzareriko garaipenarekin, gure berpizkunde agiri garbia eman zigun. "Garaitu zuan Jesus'ek eriotza ta gudan ere garaituko du. Legamiak orea jeikiarazten duan bezela, beroak ura jeikiarazten duan bezela Jesukristo'ren gorputz illezkorrak illezkor egingo gaitu" (Baunard).

Kristo piztu zan ezkeru gu ere piztuko gera. Jesus burua dugu. Atal, soinki gera. Eta burua berpiztu ezkeru gopuzkiak berpiztu bear. Ez dagokio buruari atal gabe egotea... Egia da Adan'en pekatuagatik iltzera beartuak gaudena, bere ondorengoak geranez. Kristo'ren ondorengoak geranez, berriz, bera bezela berpiztekoak gera. "Adan'engan danak iltzen diran bezela, Kristogan guziak pizten dira".

Azitzat aukeratu ditu Jainkoak gure gorputzak eta lurrera jaulkita ere, bizitzaren kimu berria emango dute... "Jaungoiko SEMEAREN otsa illak entzuteko garaia ba-dator" (Jon V, 28).

JESUS gure bizitza da ta izango ere betiraundaan. "Ni bizia dezaten ta gainezka dezaten etorri haiz" (Jon X, 10).

Joxe - Austin

Urretxu'ko Pasiotarra

# IZATEAREN AZTERKETAN

Goazen, lagun ori, zentzuen mundua aazturik, izatearen bide argietan ibillaldi bat egitera. Murgil galtezen izzte garbian, eta bizkortu gere izate urri ta neketsua bere kolkoari darion ur gardenean.

Leenbizi zer esamiñatu nai nuken agertu bear dizut. Izatea aztertu nai dut, ez izakia, edo entea esan oi duguna. Latiñez, errealidade oiek bi itz dituzte: ens eta esse, au da: leenengoak izatean dagoen zerbait ematen digu, eta besteak, "zerbait" orri begiratzeko, izate utsa. Erderak, berriz, bi idea oiek itz bakarrean ere eman oi ditu: "ser" esaten du, biak adierazi naiez.

"Zerbait"-a utzi ta goazen gu izate utsera. "Izatea" (=esse) esatean, ez dut izatean irautea besterik adierazi nai; "izakia" (=ens) idaztean, berriz, izatean dagoen zerbaita ere gogoan artuko dut.

Ta oartxo auek aaztu gabe, goazen maira.

Izatea ezagutu, edo obekiago, jakin nai dugu. Zer da, ordea, izatea? Hu ba-gera, izatean gaude; baiña bai ote dakigu izate ori zer dan? Ona emen gure problema.

Nere ustez, filosofian leenengo egitekoa, jakintza ziur baten oinharriak tinkatzea da. Filosofi guziaren ataria, kritika ta jakiteari dagozkion problemak dira. Filosofian leenago izan bear dute jakite-eztabaidak, izatearenak baiño. Beraz, izatearekin ekin aurretik, esamiña ditzagun guk ere, apur bat bederen, izate ortara garamazkiten ezagutza-bide malkartsuak.

Gizonak -zenbaitek ola nai ezarrenba-du bide bat baiño geiagorik mundua ezagutzeko: adimenekoa ta identidadezkoa. Ba-dakit aurrez, baten-batek bigarren oni kopeta beltza erakutsiko diona; baiña ez da oinbesterako... Adimeneko ezagutza ontan, berriz, ba-dera beste bi bide-txigor: arrazoizkoa ta bizitzazkoa.

Iru auetatik bi dira izatearen jakiterako serbi dezaiguketenak: bizitzazko ta identidadezko ezaguketak; arrazoizkoaz, ordea, ez gaitetzeke balia. Ikus dezagun zergatik?

Arrazoiak silogismuz lan egiten du; logika-bidea da arrazoiarena. Premisa zindoak auketatu, ta aueli darien ondorea jaso: au da arrazoiaren zeregiña. Lan modu onek izakia du esamiñagaitzat, ez ordea izatea, arrazoiak zerbait zati-garria bear baitu, ta izatea ez da atalezkoa. Ezagutza danak definiziño otz batean eman oi dizkigu arrazoiak. Logikak, berriz, -arrazoiaren nagusi danez- definiziñoari mugarriak ezartzen dizkio, ta au egitean, baita arrazoiari berari ere.

Definiziñoak ba-ditu logikazko bere legeak, ta lege auetan ajolatsuenetakoa onela agintzen duena da: definiziñoak, legezko izateko, izakiaren generu ta espeziea erakutsi bear dizkigu, ta biok gabe ez dago benetako definiziñorik.

Izatean, ordea, bi oiek ez ditzazkegu aurkitu, generu ta espezie guzien gaiñeko ta goragokoa baita izatea: denon jatorburua da bera. Onegatik ta logikazko arrazoiiaz ari geralako, ar-

razoiaren bidez ez dezakegu izaterik atxiki. arrazoa ta izatea ez dira iñola ere ezkongarriak.

Adimenak ba-du oraindik izatea arrapatzeko beste tresna bat: intuiziñoa. Intuiziñoa arrazoiketa gabeko ezagutza bat da; aurrez-aurre ikusi ta ikutu egiten du intuiziñoak. Intuiziñoa, izateari adimen-biotza kolkoratzea dela esan genezake; adimenaren txokorik bizitzaz-koenetik jaio da bera. Izate izkutuaren zatitxo bat ikutu ta miazkatu nai badugu, ez da guretzat mundu ontan inztuiziñoa besterik; baiña, zoritxarrez, onek ere ez digu izate-itxaso agortuko, zabaltxoa baita bere aundia gure adimen kaxkararentzat.

Balmes'ek dionez, izatearen idea gere adimenean dakargu jaiotzetik; bizitzarekin batera eman zitzaigun idea bikain, zoragarri bat da. Ta nik, San Bonabentura'rekin, Jainkoaren argi miresgarri batek zindotzen duela idea ori esango nuke. Ba-liteke emen norbait, delako abtraziño algustiduna astinduz, etörtzea; baiña oraingoz utzi dezagun eztabaida ori ta goazen aurrera.

Onelako idea inatu bat ametitzeak, ez ote du ezagutza-apriorismu bat onartzea esan nai? Ez, idea onek ba-du munduarekin zerikusirik-eta. Jainkoak eman digun idea au esperientziz susperetzen dugu; leen gere barnean ixillik zegoen gogaia -esperientzia ta idea, elakr ongi datozelako-edo- esperientziak esnarazten du. Beraz, munduak eta izatearen idea onek ba-dute artu-emanik.

Gu, geu ere izatez egiñak gera, eta ezagutu nai dugun izatea ez da auzoan bizi dan zerbait, geure-geurea dana baizik. Gugan arima bizitza piztean, gere izateatzaz ere konturatu egiten gera. Anpoko esperientziak gere izatea ikutzen digunean, zirrara bero batek esnatzen du adimen-kabi epelean genuken izate-idea, ta arrezkero ausnar dezakegu izatearen mami ezezagun ta erdi-izkutua.

Intuiziño-bidezko jakituri au zatizkoa da, ordea. Ai izate dena bere osotasun guzian, jakin eta gozartu aal bageneza! Baiña mundu on-



tan -bestean bai ote?- ez du gure adimen-  
-ttattalkeriak orrelako zorionik iritxiko.

Bizitzak, intuiziñoa lagun, ematen digun erdizkako ezagutza onekin ez du aski gizonak, jakin-goseak zirikatzen duen giza-adimena ez baita baretuko jakintza osora eldu arte: ezta iñola ere. Gose ase-<sup>ezin</sup> eta madarikatu onek erakarri dizkio Filosofiari ainbat bide-galáze. Gizonak izate osoa xurgatu nai luke, ta adimenak jakituri ase ori ukatu diolako, beste jakintza bide bat asmatu du: identidadezko ezagutza. Hegel'en idealismu absolutua da identidadezko e-jemplurik jatorrena.

Izate den-dena ezagutzearren, izatea ta pentsamendua identifikatu egin ditu Hegel'ek. Izatea ezagutzaren kanpotik geldi badedi, ez dugula iñoz erabat ezagutuko ikusirik, bi izaki ciek batu, izaki bakar egin ditu. Onela, izatea ez diteke iñolaz ezagutzaz kanpotik gelditu izatea kontzientzizkoa da, kontzientziz egiña. Pentsamendua esan edo izatea nitatu berdin da, errealdade bakarra adierazten baitute. Giza-adimenaren joerarik bildurgarriena, gere barnean daramakigun tentaziorik okerrena, idealismu-egarria izango da beti.

Iru bide auek -arrazoizkoa, bizitzazkoa ta identidadezkoa- adibide batean laburtu ditezke. Larrosa xuri-gorria zer dan era askotan jakin dezakegu. Galdeiozu muttiko bati. Bear bada, eskola-liburua eskuratuko du ta zera esaten asiko zaizu: "Larrosak pistilua ta petaluak ditu, onelako ta bestealko kolorea dauka, udaberrian jaiotzen da..." Baiña esan dizkizun guzi ciekin bai aal dakizu larrosaren izate berezi ori zer dan? Eman dizkigun zuzenbide ciekin bereala aurkituko genuke larrosa bat; baiña kanpotik begiratuaz, axalean geldituko giñake. Onelako zerbait egin nai digu arrazoiak ere izatearekin: zatitu, ta alde guziak -barnean daukan bizitz geldieziña ez beste dena- erakutsi. Ondo txiroa arrazoiaren aalmena!

Baiña galdeiozu aurtxo ttikiari larrosa zer dan. Ez du noski pistilua ta abar dituenik jakingo; berak, ordea, ba-daki larrosak nun

dauden. Alboko baratzatxora joan eta, usaitu dezazunlarrosa-buru biguin bat eskeiñiko dizu. Ez du umeak itzaldi luzerik izan, ez liburu jakintsurik; baiña begi aurrean jarri dizu izate osoa: larrosaren maitasun gorria, orritxoan leguntasun guria, usai kilikagarria...: dena bat-batean bizi izan duzu. Auxe bera egiten du, ba, bizitzazko intuiziñoak ere: Jesus batean, mundu beartsu ontan ditekeneraiño, izatearen bizitza jaso.

Ezagutza auen gain, ordea, beste bat daukagu. Noraiño ezagutuko ote genuke larrosaren izatea gere adimena bera udaberriko larrosa goxo egingo balitz? Adimena larrosatu... orra or izatea bizitzeko bide bakarra; baiña gizonoi debekatua zaigun bidea. Jainkoagan bakarrik betetzen da oinbeste filosofilariak amestu duten au: Beragan bakarrik batzen dira izatea ta pentsamendua; Berak soilik dakizki izatearen sakona ta bertan pil-pil dauden posibilidade debak.

Ta izatera garamazkiten bidetxigorrak esamiñatu ondoren, goazen izate berarengana. Azter ditzagun, pittin bada ere, izatearen erraiak.

Izatearen jakintzak emango digu gure mundu-ezagutzaren neurria. Izate osoa ezagutu aal bageneza, mundua ere oso-oso-erik ta bere zuzter sakonetik miazkatuko genuke. Derriorrez, izatearen ezagutzak munduarena ere berarekin daramaki, ludia izatez egiña ta eratua baita: munduan ez daukagu izatea besterik. Gauza guzien gaia izatea da, onek osatzen du dena; zerbait dagon zirrikitu guzietan dago izatea. Mendiak izate dira, iturriak izate; soroak, etxeak, zerrua, gizona, Jainkoa..., denok izatea besterik ez gera. Bai bikaiña kreatura guzion arteko izate-anaitasuna!

Zer da, ordea, izaki guziongana mamitu zaigun izate au? Zertan datza "izate-tasun" ori? Zerk izate izanarazten du? Zein da ozta-ozta ezagutzen dugun izate onen esentzia? Mendiak arriz ta lurrez osatuak dira, gizona aragi-ezurrez... ta izatea zertaz gaitua da? Ez da au txantxetako galdera; berari dagokion erantzunak azalduko bai-

tigu mundu denaren azken misteriaua.

Izatearen esentzia jakin nai dugu; esentzi au, berriz, materialzko ta formazko kausekin bat dator, izatea makutsean artu ezkerok, irurok izate bakarrean identifikatzen baitira. Onegatik, izatearen esentziatzaz edo kausa oietzaz galdetzea berdin da, errealdadean iru oiek ez dira banatzen-eta.

Edozeren esentzia au omen da: id quo res est id quod est; au da, gauza izate-mota "ontan" edo "onelakoan" jarriarazten duen zerbait ori da esentzia. Zer du izaki onek bere barnean, kausa efizienteagandik artu ta orain "onelako" izate maillara jaso ta bertan irauarazten dunik? Gizona Jainkoak sortu du; baiña zer da gizonagan dagon eta gizona gizon, eta ez abere, izanaraztera beartzen duena. Izateatzaz ere orobat jakin nai dugu: zer da izatea berarena dan eta izatea izatera bultzatzen duena?

Ba-liteke norbaitek izateatzaz onelako galderarik ezin ditekela egin esatea, ezagutzaren muga izatea dala-ta. Baiña ez dakit onela zergatik izan bear duen; izan ere, nork debekatuko digu izateari bere erraietatik izkutuki au steratzen saiatzea. Gure adimen kaxkarrak berez ditu muga estuak, guk geiago esitu gabe ere.

Izatearen esentzia... izatearen gaia... ona emen Filosofiaren problemarik bikaiñena. Asiera-asieretik izateari buruz au galdetuko nuke: bere esentzia kualidadezko edo kuantidadezkoa ote da? Zentzu gabeko galdera dela au esan genezake, izatea determinaziño guzien aurrekoa baita. Alaz ere, ez dut sentidu gabea danik uste. Emen darabilkigun izate au Jainkoa bera dela esan dezakegu, izakera berdiñak baitituzte biak: trazen-dentzia, sinplizidadea... Ta Jainkoatzaz kualidadezkoa edo kuantidadezkoa, au da, kualidadetasunez edo kuantidadetasunez egiña dan galdetzeak badauka noski sentidurik.

Kualidade-kuantidadeak aztertzea utzirik, ikus dezagun izatearen jabetza nori dagokion. Izatean ba-ditugu beintzat kualidadeak: ontasuna, egia... Izatea kualidadeduna dela guziek ametzten dute, ez dago ontan zalantzarik; beraz, iza-

tearen sustraia, esentzia, ere kualidadezkoa da. Zergatik? Kualidade oiek izatetik jaiok direlako. Ta kuantidadezko izate batetik nola kualidade oiek sortu? Au, izaki pobreago batetik bikaiñagoa sortzea litzake. Kualidadeak beti dira kuantidadea baiño bikaiñagoak, eta ba-dakigu aforismu ura: nemo dat quod non habet; larru gorrian dagoenak ez dezaigukela galtzarik eman, ezta txirotasunak aberats egin ere.

Ta izatearen kualidadetasuna nolakoa da? Hegel'ek, aitatu dugunez, izatearen kualidadezkotasun ori pentsamendua dela dio. Au, ordea, eguneroko esperientziak ukatzen digu. Izatea pentsamenduzkoa, kontzientzizkoa, balitz, bat-batean eta osorik ezagutuko genuke izatea. Onela, izatearen posibilidade denak begirada batean atzemango genituzke, izateak bere burua ezagutzea bailitzake. Au onela balitz, mundu ontan bertan geneukake Balmes'ek "zientzi trazendentala" deitzen duen jakintza bikaiña. Idea bakarrean izate osoa ta bere aalmen denak ikustea da zientzi au: Izate sinplean ludi dena besarkatzea. Baiña, zorritzarrez, ongi dakigu amets onen eziña.

Zer da, ba, izatearen kualidadezkotasun ori? Osotasun-gosea, naia: ez da besterik. Platon'ek ere au bera digu: izatea, arrazoiduna edo gabea izan izakia, berez goraka bearrean aurkitzen dela. Neurria kanpotik ez badator kio, izatea berez bete, asea ta osoa dela; izateak ez deza-kela bere buruaren bikaintasuna esi: esi oiek ez dizkio bere barneak jartzen, bikaintasun-gurea besterik ez du barruan-eta.

Aurrean dauzkagun izakietan ere ikus dezakegu izatearen borondatezko esentzi au. Begira bizigabeak derizkiegun kreaturei. Benetakoa ote da, gero, oien bizigabetasuna? Beren izate-tik ez bada, nundik datozkie orduan ain zuzen darabilzkiten lege oiek?

Bota dezagun zeru-gora arri koxkor bat. Geroz ta geldiroago igoko da, ta azkenik emen dator, tximistak arturik, lurrera. Zer gertatu zaio? Zerk erakarri du lurrera berriro? Grabedade-legeak eragiñik etorri dela esango du norbait. Baiña, zer da grabedade ori; materiazko iza-

ki auetan zergatik onelako elkartasungurea. Beste norbaitek au ere esan lezake: ori erabakitzea zientifikuen egitekoa dela, ez filosofilariena. Bai ote? Oraintsu, Alemani'an jakintsu batek teori berriren bat asmatu omen du grabedade-legea esplikatzeke, ta nai denean lege au ezerezteko: Grabedadea ez dakit nolako magnetismu-indarrez sortua dela dio berak. Onelako teoria batek, ordea, guk nai dugunari ez dezaioke erantzun: barrurago sartu nai dugu guk. Ta teori au egia balitz ere, aurrera joango giñake: nundik datoz indar oiek, zerk jaiotarazi ditu?

Gure mundutxo oni begira galdetzen duguna, berebat galde dezaiokegu kosmo osoari: zerk darabilzki izar, nebulosa ta gaiñerako mundu oiek beren bideetan? Munduko lege oiek nun dute befen jatorria?

Galdera berdiñak zuzen dezaizkiogu mikrokosmoari. Kimikako gorputz berriak, lege jakin batzueri dagokienez, jaiotzen dira. Baiña lege auen oiñarria nun da?

Ta bizidunen egokitasun eta elkartea? Zerk legetzen du bizidunen mundu au? Emen ez du Jainkoak esateak balio, Jainkoak izaki guziet izakera bat eman baitie, ta orain bakoitzak bere naturalezari dagokienez jokutzen du.

Kosmo denak joera bat, bizitza, bada, leenengo izatetik darion gose bat ase nai due-lako da. Ta bikaintasun-egarri au izaki guzien-gan aurkitzen dugu, bai espirituzko ta bai materiazkoetan ere. Osotasunerako joera au ain guziena izanik, ezin diteke izatetik baizik jaio, ta izatearen esentzizkoa izan bear derrior.

Onera iristean, ez daukagu izatearen naitasuna aitortu besterik: izatea naiezkoa da. Izatearen esentzia, mami dena, nai bat da, ta mundu dena izatezkoa danez, borondatezkoa ere ba-da.

Intxausti'tar Joseba Ank. ofm.

-Arantzazu'koa-

# AINGERUAK

## TOMAS DEVNARENENAN



Aingeruen izatea aspalditik aitortua da: siñismendunak ez dute beñere zalantzan jarri idazti Donean ain garbi azaltzen dan egi ori. Ez da beste orrenbeste gertatu teologiarien artean aingeruen zer-izana (naturaleza) erabakitzean. Gaiarik bai ote dute edo ez? Orra or azkatu nai izan dūten korapilloa. Idazti Doneak ez dute auzi ori erabaki: Itun Zarrean naiz aingeruei "Spiritus" deitu edo beren agerpenetan gai meez inguraturik aurkeztu ats-utsak edo soñta gogoz osatuak dirala aitortzeko biderik ez du ematen. Izan ere jekin bear da lenik idazle aiek "Spiritus" itza erabiltzean zer adierazi nai auten, au da, gaiarik gabeko izakiak zirala edo ezartzen zioten soñ arin ura beren zer-izanaan sartzen zala edo ez. Itxurazko gauza dirudi esatea, garai aietan orrelako filosofi-azirik e-tzitzaiela buruan ere igaro.

Itun Berriko idaztitan gauz berdiña ikusten dugu. Ez da aurrez-aurre filosofi-auzi ori jartzen: Lukasen itzak: "Palpate et videte quia Spiritus carnem et ossa non habet, sicut me videtis habere" (Luk. 24, 39), ez dute erakusten aingeruak ats utsak dirala. Izaki auek naiz gizonak bezelako soñnik ez izan ba-dezake-te soñ ariñagoa izatea. Beraz, idazti Doneetan aingeruen zer-izana illun eta lauso artean be-

zela gelditu da. Orregatik ere Elizako Gurasoetan bi alderditako iritziak ikusten dira. Baiñan amabigarren gizaldian lausoak aldentuz kezkek uxatuz eta zalapartak baretuz, egia argitaratu zigun eguzki dizdiratsua sortu zan, Tomas Donea.

Au dugu auzi oni buruz, garbiena, txukunena ta aizken itza eman diguna. Orregatik bakarrik ere ondo irabazita dauka "Doctor Angelicus" izen ori. Aingeruak gogo utsak dirala bete betean baiesten du, baiestu ezezik bere adimen zorrotz, barnekoi ta meez arraoi sendo eta egokiak atera ere bai.

Jardun, gai ori landu edo orrazteko, lenik, bere garai arteño aingerueri buruz esandako guztia bildu, Idazti Deunak alderdi batek bestera aztertu, Elizako Gurasoen erakuspen jatorrak jaso ditu ta gero ori dana berekin duanean, adimen zorrotzez miatu, gelegikeriak moztu, okerrak zuzendu, zuzen esana bere jakin-muina egin, aingeru-jardunaren zatiak lerrotu ta batu ditu lanari osotasun ta batasun tankera ematea lortuaz.

Teologi-iturririk erabillienak Idazti Deunak ditu. Akinotarrentzat arrazoi baliotsuenak "Sed contra"n jartzen ditunak dira. Orrela bada aingeruak gogo utsak dirala aitortzeko, batez ere Itun Zarrera jotzen du: "Qui facit angelos suos spiritus" (Salmo 103, 4) (Prima Parx Q. 50 a.1, sed contra). Ogeitairu biderrez izendatzen ditu Idazti Deunak "sed contra" argumetuetan. Elizako Gurasoak ere oso ezagunak ditu, etxeakoak balitu antzo. Aingeru-jardun ontan bein baiño geiagotan aitatzen ditu, batez ere; Agustina donea, irurogeita zazpi aldiz; Areopagitarra berriz, berrogeita lau aldiz 72 atalean. Toma Deunak Areopagitar Dunixi du eredu aingeru-lan ontan, izan ere bera baitzan ordura arte aingerutaz lanik ederrena egindakoa, "De coelesti hierachia" eratuz. Naiz idazki ontako erakuspenak zuzen-zuzenak ez izan, alata guztiz ere asko balio izan dio Akinotarrari aingeruen zer-izan auzi ori erabakitzeko.

Dunixi berak ere neoplatonikoen teoriatan arkitu du etorri ori, ez du berea izatez. Oien artean Plotino agertzen da maixuena. Orren

erakuspenetan du Dunixi-izunak bere jakin-iturria. Orrela dio Plotinoren teoriak: "Gauza guztiak baiño len eta goragotik lenen "Sustrai" bat dago". Zer da lenen "sustrai" ori? Gizonak ez dezaioke inolazere izen egokirik ezarri, ez bada itzik "Sustrai" orren esanaia bilduko dunik. Plotino berak "ez izan, ez zer-izan", dasaio. Izen egokiena "bata". Eguzkitik, bera batere aldatu gabe, bere izatea utzi gabe, argi-printzak sortzen diran antzo, orrelaxe "bat" orretatik izaki guztiak irtetzen dira bata bestearen ondortik. Lenengoak ederrenak, osoenak; aizkenekoak ez ain eder, ez ain bikainak. Lenengoetatik azkenekoetara, osotasun, bikaintasun arauz, esate baterako, zurubi bat eratzen da. "Bat" (goi-goiko mailla) orrengandik lenen sortutako izakiak adimen utsak dira: gizona, gogo ta gaiaz osatua, erdiko mailla; gai utsa azkeneko koxka.

Dunixik aingeruen izate ta zer-izanak azaltzera ematean erabiltzen du teori au. "Bat" ori Jainkoa izan bearko ta izaki adimen uts oiek aingeruak. Teori onen aztarnak "Summa"n gelditu dira aingeruen zer-izana jardun egitean: "Unde ad perfectionem universi requiritur quod sint aliquae creaturae intellectuales" (Prima Parx Q. 50 a.1). Eta batez ere: "In mundo est cor itio intellectualis dependens a sensibus... in quocumque autem genere invenitur aliquid imperfectum, oportet praexistere aliquid perfectum in genere illo. Sunt igitur substantiae perfectae intellectuales" (Prima Parx Q.51 a.1).

Toma deunak arindu ditun gaiak aztertzean bereala konturatzen gera jardun guztiak adimen ez-otz kutsatuak dirala. Teologilari aundi onek ez darakus Elizako Gurasoak oi bezela, sermoi tankeran kristau ez-jakiñentzat eratuta. Erdi-mendeko gizona dugu Toma: Unibersidadetan erakusten zan jakintzarik nagusiena teologia zan; baiñan bere gaia arte etzan azaldu teologi idazti egokirik, naiz ikasleentzat, naiz ikasleentzat. Orregatik tajutu zun bere Summa idazti sail bikain ori; ortarako filosofiaz, teologia-ren neskamea, baliaturik. Estagiritarren filosofi bikaiña darabil, baiñan gogoan artu bear dugu len esan dugunez, ez dula filosofia teologi-iturburu garrantzitsuena, Idazti Deunak baizik.



Egi bat Idasti Deunetan edo Elizako gurasoetan zindo dakusanean, orduan erabiliko dizu bere adimena arrazoiketa bizkor, mee, zorrotz ta barnekoa sartuz. Tomasek bere buru-indarrez ateratzen ditun arrazoi oiek, auzia erabakitzeke, naiz naiko indar ez izan, alata guztiz ere oso egokiak ditugu egi zindo orri argi emateko, ulerterrezago egiteko. Orregatik dasaiote orrelakoei "rationes convenientiae".

### AINGERUAK ATS-UTSAK TA ADIMENDUNAK

Auzi au Tomarenean aingeru-jardunetan lenengo atalean arkitzen dugu. Atal ontan dasagunez, ez da ain zuzen ere aingeruen zer-izanari buruz itzegiten, gai gabeko irazaki batzuen izate bearrez edo, obeto esateko, izate egokiaz baizik. Ortarako ondorio eta arazleen artu-emanetan tinkatzen zaigu dominikar teologilari nagusia. Urratzen ari geran jardun ontan arzaleak Jainkoaren adimen eta naimean ditugu.

Jainkoak izate oro irazatean ondorio bat jarraitzen zuan, izan ere egiten dan guztia zertarartako egiten da. Ondorio ori Bere antzekoak izatea zan. Baiñan ondorio arazle oien elkar arteko antz ori erabateko izan dedin, arazleak ondorio-sortzean darabilen bitarteko edo bide beraz jarraitu bear dio ondorioak bere sortzailleari. Adibidez: larratza beroaren antzeko onen eragiñez berotu dalako. Orrela ba egoki da zeru-lurren osotasunerako izaki batzuk benepein adimen-utsak izan ditezen. Baiñan ulertzea ez da gaiarena, beraz bear dira izaki batzuk gai gabekoak, ats-utsak zeru-lurren osotasunerako.

Tomak buru zorrozki auekin bi egi ematen ditu azaltzera: bata, aingeruak gogo utsak dirala; bigarrena, aingeruak adimendunak. Orra or zergatik ez dun jartzen beste atal bereizirik aingeruen adimen izatea egiztatzeko.

Une ontatik, Tomak buruketa bizkor auek azaldu ondoran auzi-burruka au amaitu da, teologilari geienak arrezkero dominiko aundiaren erakutsiari jarraitu diote eta egunetik egunera geiago dira, ori baida iritzirik egokiena.

Ta egunean ez degu iñor (Eskotistak ezean) aingeruen gogo-utsezko izate ori ukatuko dunik. Naiz ez izan sinistegiko egia ala ere ori da Elizaren ustea.

Aingeruen zer-izan ontatik sortzen diran ondorioak ugariak eta filosofi-arauz bear bearrekoak dira: aingeruak adimena, naimena, ezilkortasuna ta azkenik toki ta astiarekin dituzten artu-emanak. Akinotarrak aingeruen zer-izanean tinkatuak dauden lau arnari auek, filosofi ostroz edertu ditu.

Nik axaleko urraketa besterik ez det egingo, Summa-ko atal oien kutsua emanaz.

#### AINGERUEN ADIMENA

Beren izatea zer-izana jar dutzean ikusi dugu. Ez da gizonaren berdiñeko, zorrotzagoa ta zabalagoa baizik. Ez baidu gureak bezela jakin-ezoa zentzuen birtartez lortzen. Jainkoak izatea ematearekin batera artu dituzte "species" adimenaren jakin-izpiak. Ez dute guk bezela buru zorrozkien bearrik, bat-batean dakite ta utserako biderik iñolaz ere ezin artu dute.

#### AINGERUEN NAIMENA

Aingeruak adimena ba-dute. Naimenak adimenari jarraitzen dio, beraz ba-da aingeruagan naimena. Naimen ori zer-izan eta adimenarekin ez du bat egiten, Jainkoagan baida bakarrik adimena, naimena, izatea ta zer-izana gauza bera.

#### AINGERUEN EZILKORTASUNA


Aingeruak ez du gaiarik, baiña filosofian ikusten danez, eriotzaren, desegintzearen sustraia gaia da. Ikusi dugu aingeruagan ez dala batere gaiarik, beraz aingerua ezilkorra da. Aingerua ta gizonetan "forma" ori naiz gaiagandik aldendu, beti izatean gelditzen da. Orrela bada aingeruetan ere beti izatean egon bear.

TOKI TA ASTIAREKIN DITUTEN ARTU-EMANAK

Tomak,  
Boeziok bezela, aingeruak tokia betetzen dula ukatzen digu. Baiñan betetze ori "localiter" ulertu bear dugu: urak ontzia betetzen dun bezela. Ortarako zabalera bear du izan aingeruak, baiñan gaiarik ez dunak ezin euki zabalerarik iñolaz ere; orregatik, ez daude lekuan aingeruak, "operative" baizik, au da, tokian daragiteenez. Ala ere ez dago toki guztietan batera, aingeruen zer-izana mugatua dalako.

Muxika'tar Errupin

Lazkao'ko Beneditarra



---

# MUNDUA BETIKOA ? ASIERADUNA ?

Mundua Jaungoikoak egiña da. Au Idazteunetik dakigu. "Asieran Jainkoak, ortzi-lur-rak irazan zitun." Ta guk, burua makurtuaz alaxen da esatera beartuak gaude.

Orain, ordea, teoloji ta rebelazioko bideak alde batera utzi ta pilosopikoetan zear sartu gaitezen. Auxe da jakin nai duguna: ia mundua betikoa ote zeikean. Ta ortarako irazatea zer dan adieraztea ondo iruditzen zait.

Irazate au Jaungoiko ta munduaren arteko zerbait ote da? Bi oien artekoren bat izango balitz, edo Jaungoikoa edo munduaren aldetik litzake. Baiña, begira, Jaungoikoa beti bat da, beti berdin, aldakaitz (inmutabilis) utsa da; beraz Jaungoikoaren aldetik ezin dezakegu ezer berririk jarri. Munduaren aldetik, berriz, ezin ezer ipiñi. Irazan baiño leenago ezer ez baida.

Irazatea aldakuntza bat bezela ere artu oi da. Ezerezetik zerbait izatera iristea bezela, noski. Pilosopik esaten du: "creatio rei ex nihilo sui et subjecti".

Ikusi dezagun. Ezerezetik ez da ezer

egiten. Ezereza, ezereza da ta besterik ez. Ezereza utsa. Jaungoikoak mundua etzuan ezerezetik egin. Bai zera! Jaungoikoak ezer etzala egin zuan mundua. Eta oorela pilosopi esana ere artu bear da. Beste oiek gure buruaren asmakizunak dira. Zubi bat egiteko, bi aldeak arrimo bat izan dezaten, bi bizkar jarri bear ditugu. Bizkar batekin ez dago zubirik. Orixe bera gertatzen zaie mundua ezerezetik datorrela esaten duteneri ere. Alde batetik arazia, mundua antxe dago ta zubia alde ortatik tinko gelditzen da; baiño bestetik koloka. Ezerezean arrimorik ez.

Munduaren irazatea aldi batean egiña ere artu oi da. Oroitu dezagun Kosmolojian esaten dan ura: "tempus est mensura motus"; gauza baiño leen ez baiño gauzarekin bat batera dator aldia ere. Beraz gauzarik ez badago ez eta aldirik ere.

Zer da, ba, irazatea?

Ikusi dugunez ezerezak munduaren irazatea ez digu esplikatzen.

Jo dezagun Jaungoikoagandik.

Irazatea hi eratan artu leike: "active" ta "passive". "Active" arazleari, Jaungoikoari begira ta "passive" araziari, munduari begira. Baita ere esaten da "actio" eta "passio".

Jaungoikoaren actio edo egite ori pilosopolariek iru eratan artzen dute:

1) Egite au ez dago Jaungoikoagan. Jaungoikoak egin du, baiña gauzetara, arazietara zuzentzen danez, "formaliter transiens" bai da, gauzetan arkitzen da. (Vazquez eta Mendive).

2) Egite au "formaliter transiens" da. Baiña ez dago ez Jaungoikoagan, ez gauzetan; erabat osotoro "transiens" da. (Suarez, Arriaga, Hellin).

3) Jaungoikoaren egite ori "formaliter inmanens" da. Erabat Jaungoikoaren barruan dago, Jaungoikoarekin bat da. "Transiens" ere ba-da,

baiña "virtualiter" bakarrik. Jaungoikoak ezin dezake egite ori beretik kanpo ipiñi. Ori "formaliter inmanens" izateak eragozten dio. Kanpora zuzentzen duna egite orren arazia, efektua da. Gu gizonokin ere berdin gertatzen da: gauz bat egiten badegu, arazia, efektua, dijoa kanpora, ez gure zerbait. Geienak au defenditzen dute.

Mundua Jaungoikoaren aldetik begiratu-ta, au da, "active", betikoa da. Izan ere Jaungoikoa "Simplicisimus" da ta Beregan dana bat da. Jaungoikoaren egitea Jaungoikoa da. Beraz, irazatea betikoa da. Baiña ori "active artuta.

Orain "passive" begira deiogun. Munduaren aldetik. Arazi batek bere arazleari esaten dion relazio bat da. Besterik ez. Nola gertatzen da ori? Begira, Jaunak nai izan duanean mundua egin du. Baita ere bat-bateko ortantxe "relazio" ori ere sortu da. "Relatio seu respectus unius ad aliud" Au da, munduak, araziak, Jaungoikoari dion relazioa. Irazatea "passive" artzen bada, esan degun relazio ori besterik ez da.

\* \* \* \*  
\*

## MUNDUA BETIKOA AL DA ?

Aristoteles izan zan sasi su-emaillea. Berak esan zun: mundua betikoa da. Bere ondorengo pilosopolariek nori eldu etzekitela ibilli ziran. Alde batetik Idazteuna; bestetik Aristoteles. Nora jo? Nori bostekoa luzatu?

Santo Tomas'ek auxe esan digu: Ez dala bearrezkoa. Leikean gauza dala. Siñismena daukala bakarrik kontra.

### I.- Ez da bearrezkoa.

Gauz bateri bere bearrezkotasuna, egillearenetik, arazlearenetik, datorkio. Ba-dakigu munduaren egillea Jaun-

goikoa dala. Bai, baiña, Jaungoikoak nai duana egiten du. Gauz guztiak "libere" egiten ditu. Beraz, mundua ere Jaungoikoak nai duana izango da.

Ikusi ditzagun Aristoteles'en arrazoiak.

Aristoteles'ek munduan gauz aldakor asko daudela aitortzen zuan. Baiña, munduaren gerria, asentua aldakorra ez baiña aldakaitza zala esaten zuan. Alegia, munduan "necesarie" dan zerbait jartzen zuan. Eta, jakiña, bearrezko izan dan gauza bat, beti izan da. Ez du ez asierarik, ez bukaerarik.

Mundua izan ez balitz, ordea, ezer izan ez balitz, ez eta aldakorrik naiz aldakaitzik, ez zan ezer izango. Beraz, Aristoteles'ek esaten zuana gertatu zedin, mundua jarri bear dugu leenago. Eta mundua Jaungoikoak nai duana izango da.

Zeintzuk dira "necesarie", bearrezko diran gauz auek? Batzuentzako gaia, materia da. Eta gaiaren lantzea Jaungoikoari zegokiola esaten zuten. Aristoteles'ek mundua erabat osatua, landua jartzen zuan; eta orren betikotasuna materiarenarekin probatzen. Materia, gaia betikoa da -esaten du- ez baldauka "kontrariorik"; beraz, ez nundik jaiotzerik.

Baiña onekin jaiotze-era, jenerazio-era bakarrik probatzen da. Ta zer irazana bada?

Aristoteles'en beste argumentu bat:

Egite batek beste aurreko egite bat adierazten du; mugimentu batek beste mugimentu bat; une batek aurreko une bat. Asiera guztia segitze bat da. Gure buruak orrela ikusten du beintzat.

Onekin gure buruaren moteltasuna baiño ikusten al da? Orresbesteraño ez gerala iristen eta ukatu egin bear dugu? Ortxe dauzkagu arrazoiaren leen printzipioak. Amaika gauzen iturri dira ta nun dute berak sor-iturria? Ez daukate! Gure mundu ontan gauzak orrela gertatzen dirala ta atera al diteke munduaren asierakiko konklusiorik? Olakorik!

Beste bat:

Jaungoikoa betikoa da. Bere egitea ere bai. Ortaz egite ortatik datorren efektua ere betikoa izango da.

Begira, munduaren sortzea Jaungoikoaren betikotasunari ez baiña Jaungoikoaren naiari zor zaio. Jaungoikoa betikoa izango da, baiña mundua Berak nai izan duana. Betikoa nai izan bazuan, betikoa; besyela asiera duna.

Ezin leike, ba, munduaren bearbearrezko betikotasuna probatu. Ez dago ori probatuko duan arrazoirik.

## II.- Leikean gauza da.

Munduaren betikotasuna edo asieraduna izatea, edo Jaungoikoari begira edo munduari begira probatu bearko litzake. Bi oiek besterik ez baidago.

Betikoa edo asieraduna izatea munduari zer? Bitakoren bat izango da, noski; baiña ez aukeratu dulako, eman zaiolako baizk.

Bestalde, berriz, munduaren betikotasuna dala-ta Jaungoikoari zerk eragozten dio nai duana egitea? Gauz batek bakarrik: au kontradizioa da.

Munduaren betikotasuna kontradizio bat dala nork guri erakutsi? Askok ori nai izan dute; alegia, kontradizioa billatu nai. Baiña S. Tomas'entzako ori ta aruntz-onuntz dabillen or-bela dana bat. Jaramon gutxi egin zien.

Mundua betikoa? Pilosopilarientzako au buruauste aundi bat da.

Bego siñismenarentzako bidea zabalik!

\*\*\*      \*\*\*      \*\*\*

Bedi oar bezela onoko au: Alegia, beste batzuen aurrean, konferentzi-eran egiteko eratu dagola onoko lantxo au.

\*\*\*      \*\*\*      \*\*\*



Eskuartean ibilli ditudan liburuak  
auexek dira:

"LAS GRANDES TESIS DE LA FILOSOFIA TOMISTA" A.D.  
Serillanges, O.P. Ediciones Desclée, de Brouwer.  
Buenos Aires.

"SANTO TOMAS DE AQUINO" Joao Ameal. Ediciones y  
publicaciones Españolas. Madrid. 1945.

"PHILOSOPHIAE SCHOLASTICAE SUMMA" t.III. Theodi-  
cea. Iosephus Hellin, S.J. 1952, B.A.C. Madrid.

"SACRAE THEOLOGIAE SUMMA" t. II. De Deo creante  
et levante. Josephus Sagüés, S.J. B.A.C. 1955,  
Madrid.

"CURSUS PHILOSOPHIAE" Carolus Boyer, S.J. t.II.  
Theodicea.

---

Dorrnsoro'tar Joakin  
Villaro'ko Sakramentinao.

# MESIASGO BERRI BAT

Sarritan uste izan dut Mesianismo edo Mesiasgoa judutarren zerbait bakarrik zala. Baiña aztertuan aztertuan beste jende mota asko ere idea orrek bultzata eta eraginda bizi dirala ikusi izan dut. Besterik ezean norberak sortzen du mesiasgo berri edo jainko-aizun bat, eta orri atxiturik bizi zaigu.

Danen gaiñetik eta guzi oiek baiño sakonago errotuta daramatela ikusi izan ditut komunistak. Beren jaiotegunetara biurtzen baldin bagera, argi ikusten ditugu nundik norako pausoak ibilli izan dituzten komunistak oiek beren bizitzan.

Ezin uka diteke materialismoak Hegel'en uretan edan duanik; baiña erosoago esanaz, baletsienez ezker aldeko hegel-zale gazteak jaurti zutela hegelismoa materialismoaren altzoan. Hegel-zale gazteak auek gizarteko goraberak eraginda, makurtu ziran materialismo aldera. Gazte-talde onek sortutako ideazko matxinada Federike Strauss'k ebaki zuan erabat beroien aldera "Jesus'en bizitza" liburuakin. An ez dago Jainko-usaiezko ezertxo ere, izadi onen gaiñetikoak ez

du baliorik, ez dauka bizirik, esta izanik ere; dana lurrari loturik dakusgu, izadiari atxiturik, xede guzian emen bean itotzen dira, korapilloa lepora bai-liote... Ideoloji ontan Jaungoikoak ez du tokirik: berak diotenez "orain gizona du-gu Jaungoiko", gizona gauza guzien nagusi eta buru, "homo homini deus", "Gizona gizonari jainko" Gizona gaillendu digute neurritz gora, eta Jainkoa zangoperatu.

Baiña hegel-gogaiak etzuten nunbait gure Marx bear ainbatean ase: eta Hegel atzekoz gora ipiñi zigun. Hegel benetan izarretaraiño igo zitzaigun mundu eta bertako gauza eta ikuskizun guziak Idea ren kanpora azaltze bat besterik etzirala eutsiz. Baiña Marx, aitzitik, lur-ondoraiño sartu zitzaigun, danen muiñ eta oiñarri materi utsa dala baieztuz. Gizarteko gorabera guziak, kultura, erlejio, eskubide, oitura, eta abar... materiaren mende edo materi-eragipenaren morrointzan jartzen ditu Marx'ek. Hegel'ek, bestearen iritzian, gauzak atzekoz aurrera jarri omen zituan, eta berak, Marx' k, bakoitzari bere tokia eman nai zion. Baiña Marx'ek eskeintzen digun materiālismoa ez da illa; gizona eta materia elkarrenganako artu-emanetan jartzen dizkigu: biak daukate elkarrenganako zerikusia. Patak bestea mugatzen du. Marx'ek ez du geiegi aztertu nai bere teori ortan, Kant'et-eta bereetan egin zuten bezela: Marx'ek gizonari begiratzen dio batez ere; gizonak dio ajolarik aundiena... izan ere gizona ikusi bai-zuan beia-jota Frantzi eta Ingalaterra'ko antegietan. Gizon-langillearen erosle izan nai du, langille-maillaren Mesias berri bat.

Marx'ek bere leia guziak gizonagan ezarri ditu. Ekonomiak gizona lur-jota utzi digu, indarge, bere nostasun jatorraren berri gabe; ekonomiak auldu eta itsutu duan giza-konzi-entziari erlijioak damaio, Marx'en ustez, konso-lagarri eta aringarri pixkat. Gizonak eztauka itxaropenik bere buruan, eta Jainko orregan gorde da. Feuerbach'k erakutsi bideak ondo asko ikasi zitun Marx'ek: Feuerbach'k nai duanez, gizona Jaungoiko ortatik aske utzi bear da; Jaun-

goiko ori erabat alden du bear da gizonaren begietatik, gizonak berriro galdutako aunditasuna lortu dezan. Jaungoikoa alde batera zokoratuz, giza-askatasunari oztopo bat kentuz uste dute. Feuerbach'ek zionez "Jaungoikoa mito bat, mamu bat besterik ez da, eta giza-konziientziaren leia guziak Jainko ortan azaltzen dira... Norberaren naiak sortzen dute Jaungoiko ori..." Feuerbach-zale oien ustetan "siñismena buru ariñen gordeleku dugu". Orregatik Marx eta marxistentzat erlijio guziak ukagarriak dira, gizonari bere beartasun eta morrointzaren konziientzia ito eta itsutzen diolako. Bide ortatik etorri zaigu Marx onako au esateraiño: "Erljioa norbere konziientziaren agertze uts bat, giza-sentipenaren sorkari bat besterik ez da..." Beraz lamgille-maillari etzaio erlijioak damaion lozorroan paketsu utzi bear... Bere beartasunaren berri jakin bear du, beregandik astintzeko.

Eta ona emen marxista-komunistak sortu diguten Mesiasgo berria: Marx'en ideolojiak sortu digun proletariotza ori mundua eraberritu naiean dabilkigu: izan ere ortxe dager argi asko proletariotza orren indar berezia. Proletariotzak Mesiasgo berri baten itxura artu digu; mito bat sortu dute eta mito orrek damaien indarrez sortu nai dute Mesiasgo orrek eskeintzen dien proletario-erregetza.

Euki dezagun gogoan, matxinada guziak mito baten ondorio, edo indar-eragille beintzat, izan dirala kondaira zear. Eta komunismoak orixe aukeratu du aintzakotzat: kondairak etzion, noski ta egiz, bere burutapenei arrazoirik eman, eta Mesiasgo orren arrazoiak asmatu egin bear izan dituzte, era ortan kondairako gertaerak beartuz eta oker-epaituz. Komunismoari ez tatorkio indarrik berak, jakintza bidetik joanda, eman dezazken arrazoi eta oiñarrietatik: jakintz-arauz joka balezate sua. Izan ere, proletariotzaren askatasuna itxaron dute, eta amets orres suzperetzen ditu.

Esan genezake komunistak itxurazko mamu-bizitzan bizi zaizkigula: ez dituzte ikusten

gizonak dauzkan zenbait alde naastuak: alde bakarrari lotzen dira. Teori aldetik begiratuta esan genezake komunismoak berea egin duala; baiña praxis-aldetik ikusi ezkerro, siñistu eziñeko indarrez jabetu zaigu, zabalkunde eta demagoji-tresnaz zenbait erri lilluratuz eta astinduz.

Mesiasgo jator bezela, ortodoxi gorriean bizi diran erlijioen antzera, bestaldeko kale egaletik letozken epeta edo zeziorik ez dute iñoiz ere onartzen; saio auek komplot edo kontrazko egiñak bezela erizten bai dituzte. Berak menderatu eta zuzendu nai dituzten erriak, Jainko anker eta gaizkilleen merroitzean omen daude, eta, beraz, esi ortatik askatu ditezen, bide guziak legezko derizkiote.

Komunismoan etzaio gizon bakarrari jarri egiten: gizon batek eman dezakean pentsamentu edo epaiaren azpitik gizarte-mailla baten aztarna nabari dute: gizon onek ez dio ajolik, orrek adierazten dion maillak baizik; gizonak ez du baliorik; gizona maillaren zantzo eta ezau-garri baita. Ez dago elkar-batzerik. Burges-kapitalista-mailla eta proletariotza-maillaren artean ez dago korapillorik: eriotzaraiñoko guda-keta daramate.

Len ere esan dugun bezela, giza-konzi-entziaren aldakortasuna ekonomiaren mende omen dago. Gu ere bat gatoz konzi-entziaren aldakortadun ortan: konzi-entzian ez digu beti arpegi berdiña erakusten: noiz estu, noiz zabal ematen zaigu: era bakoitzean giza-barruaren egonera berezi bat agertzen digu. Giza-konzi-entzia egon ez dago geldi (estatic), ibilli dabil. Baiña konzi-entziaren ala-ola ilbiltze eta agertze au ezin esan genezake gizarte naillaren ekonomi-egoerak agintzen eta mugitzen duanik: emen ez gatoz bat, kondairak damaizkigun egintzen aurkako bait da baietz au. Komunismoak, ekonomi-aladaketak ipintzen ditu gizarte-maillen aldakuntzen muin eta arazle: ekonomi-aladaketak, katoliko-iritzian, irugarren edo laugarrengo arrazoi-maillatan sartu baldin badi-tezke ondo, baiña ez muin eta arazle nagusi bezela.

Gizarte-maillak, emen langille edo proletario-mailletan egoera batek ez digu gizon osoaren egoera ertsia ematen, alde bat baizik.

Dana dala, egin diteke onartu lagille-mailla guziak batera konzientzi bakarberdiña dutenik: langille-talde asko daude munduan, baiña komunistak dioten proletario-konzientzi ori ez digu ikusten. Ezin ukatuko digu langilleak toki askotan ankaperatuta, lotuta, neurritz goitik lanera beartuta daudenik...

Nai gabe agertzen digu komunismoak bere jatorrizko pekatua: "gizon batek beste gizon bat, eta mailla batek beste mailla bat lertu bearra.

Askotan izarretaraiño jaso duten materialismoaz diardute komunista berak, eta ustekabeen-edo, moral-soroan sartu zaizkigu: gizon bat edo mailla bat lertze ori moral-begiz eta ez ekonomi-begiz ikusi bear dala ezin dezakegu aaztu. Moral-aldetik erabat gaitzetsia bear du izan, naiz kapitalista ideologoak ontzat artu: kapitalista ideologo oiek ezin bai dute besterik egin, baldin gizona lertze orrek Ekonomia azitzeko eta Errien aurrerapenei laguntzen badie.

Orregatik, Marx bere teoria zertzera-koan moral egiten diardu, eta ez materialismoa: itzetan ez baiña bere ideolojiari darion egian moral-aldetik makurtzen zaigu Marx: ori bai dala "ao batean bi mingain", alegia, materialismoa sortu nai moral-gertaera batek eraginda. Jakiña, Marx'ek uste zuanez, ekonomia izan omen da beti errigorabeeren, eta batez ere langille auzian, arrazoi eta oturri kondairá zear.

Bestaldetik, kapitalismoa zapuztu bearrekoa da -diote- ez langille-mailla lertu bearez darabiltelako, baita kapitalista-ekonomiak ekartzen ez dualako ere: izan ere, ekonomi-legeak erabat aldakaitzak dira -diotenez- eta kondairak beartuta kapitalismoa ezerezera etsita ikusten da. Marxistak sendoki siñisten dute kon-

dairak garaipena emango diela: beren filosofiak orixe baiezen bait die. Joanak beltz ikusten dituzte, etortzekoak argi erraiñuz bilduta.

Dana dala, ezin zalantzatu genezake kondairazko materialismo orrek ba-duala egitik "zerbait", ekonomiari leporatuz zenbait gizarte eta langilleen arteko goraberak... Baiña ortik, gizarteko aldaketa "guziak erabat", ezbairik gabe, ekonomiaren eragipen-azpian jarri bear dirala esateraiño ba-dago bide puxkat oraudio... Jokaera ori erraz eta bakunegia duzu. Gizartearen bizitza eta kondairak daraman azi-bidea ez dira ain arin arin ezkontzen ekonomiaren legeekin. Beste arrazoi asko dauzkagu tartean ekonomikoak baiño eraginkorragoak: jeografia bera, lurralde-giroak, errien izaerak. oiturak, gogoak, espiritua, eta abar... Emen dago Marx'en akatsa: ez digu inolazko bereizkuntzarik egin, dala pilloan artu du... eta orretzek galdu.

Asieran esan dugunez Hegel'ek zerikusirik izan badu Marx eta bere teoriak, Fichte'k ere ba-duala aundirik esan bear: Fichte'k zionez, norberak sortzen omen du mundua: benetan teori-munduan zebillen Fichte ameslaria, baiña Marx'ek, aurreko orren filofofiak eraginda, mundu berri ori ez du idea utsen mende eta esku utziko, gertatzenera, ezur-mamizko zerbaitera sortu baiño: sortu eta eraberritu. Fichte'ren idea utsak ez zuan ase nunbait gure Marx: filosofiak zemaizkion idea utsen aurka atera zitzaigun Marx, aragi-ezurrezko zerbait eskeiñi naiez. Eta materialismoa ernarazi zigun, naiz-ta au ere naiko utseri izan egitan.

Eta berriz ere bi mingaiñeko aotik diardu mintzatzen: materialisko dialektikoa darabil. Materia, gaia, arrazoiz, zentzuz, indarrez, egin-leiaz, askatasunez jantzi digute. Teori ori ez ote dugu, dirudinez, materialismo ordez idealismo bat? Batetik materia, berez illa eskeintzen digu, eta bestaldetik, dialektika izena ezartzen dio, eta dialektika gogo, arrazoi eta konzientzi-giroan bakarrik jardun dezakeana dugu: nola ezkondu bi ork?

Amaitzeko, materialismo onetan ikusten ditugun akatsik aundienak auek ditugu: bere gizaldian ikusi zituan gertaerei balio orokorra eman die. Eta emendik datoz beste oker guziak. Mota guzietako gizarte goraberen arrazoi bezela ekonomia dakar beti. Komunismoak sortu zezakean mitorik nagusiena proletariotzaren Mesiasgo ori dugu, Berdiaev'ek dionez. Moscu, Erroma berri bat bezela ikusi nai zuten: Mesiasgo orren ume.

Komunismoak bere erraietan daraman Jainkogabea Feuerbach'en udetan edana dago. Jainkogabe bizi da Komunismoa, baiña Mesiasgo ortan sinismen sutua daukate. Sinismenez bizi dira, ez adimenez, Berdiaev'en esaeran. Eta Jainkogabeko teori orrekin erlijio kutsuko guzia erabat galdu dute: moral guzia gutxietsi eta eraile digute, moral berri bat sortzeko. Bide ontatik Ekonomia eta Teknika gorai patzen dituzte, gizarte berri orren eraikitzeko.

Baiña dana dala, ba-du bere egia komunismoak. kritika egiñaz dakarren ogia. Berdiaev'ek dionez: "Komunismoaren zoritxarra, kristau munduak egin dituan zenbait pekatuen zigorra da, eta komunismoak aitortzen ditu pekatu oiek..." Kristauak ez dute beren eginbearra bear bezela bete: komunismoak esaten digu ori. Kristau bizitzan ez dugu bear aintbateko Kristori darrion su bizi ori nabaitzen: eta aintbat eta gutxigo ekonomi bizitzan... Komunismoak egia esaten digu "gizona ez dala lertu bearrean ibilli bear" ziurtatzen digunean.

Orregatik "komunismoaren gezurra deus-  
ezteko, Egia ezagutu bearrean arkitzen gera"  
(Soloviev).

Iñaki Bereziartua  
Arantzazu'ko praillea.





**JAKINTZA  
KULTURA  
ANTZE**

# EUROPAKO ELEIZ BERRIAK

Europa zaar ontan gogor tinkatu ditu sustraiak egungo erti berri onek. Frantzin bertar leiz berri jasotzea beñere ez bezain naroa izan da azken urte auetan: iru milla eleiza jaso edo konpondu dira 1949 ezkeroz.

Oraindik bizkorrago dabiltz Alemani'n: Koloni'ko inguruetan bakarrik berreun ta berrogeitamar eleiz jaso dira azken amar urte auetan. Italia ere esnatu da, batez ere Ipar-eldetik.

Orra or gai ontaz, Europa-zear dakusgun uartze alaia.

## I.- ORRENBESTE ELEIZ BERRIREN ZERGAITIA.

Lau arrazoi dagerzkigu garbiro:

- 1) Azken gudan ondaturiko eleizak berritzeagatik.
- 2) Erritxo ta baserrietatik uri aundietara datozenak zaintzearren.
- 3) Alemani'n, gaiñera, rusoen aldetik

artaldera pasa diranel laguntza eman naian.

4) Kristautasun-kimu berriak sortu diralako Europa guzian, adibidez, "Mission de France".

## II.- NAZIO ARTEKO NABARITASUNAK.

### 1.- Nun eleiz berri geiago?

Ipar-raldeko nazioak ditugu nagusi; Lutero ezkerro erlijio gudaketan naasturik ibilli izan diran nazioak dagerzkigu garaille. Emen sartu dezazkegu Prantzi, Alemani ta Suiza. Paketsuetan, berriz, Itali ta Espaiñi. Geiegirik gabe esan dezakegu eun eleiz berrietatik larogeitamar Alpes ta Pirineos goitik agertzen dirala. Gañerako amar Itali'n; eta Espaiñi'koak nun dira?

### 2.- Eleiz egikeran ezberdintasunak.

Iparraldean aurrendari, berri-zaleak ditugu. Egoaldean, berriz, adibidez Itali'n, a-serre-xamar lendar eta oraindarrak. Espaiñi'n, berriz, zaputzetan... Dana dala, jaso diren eleiz berrieri berri-kutsu bat darie. Berri-zaletasuna burua jasorik dabil. Egun, Europa'n bukatu dirala, esan dezakegu, estilokera-tzazko jardun aserreak. Danak baitetsi dute joera berri au. Garaille dugu eleiz egikera oraindarra. Garbiro dasaigu onek, ez dala au, nolanaiko ertilarien txoroaldi bat, jakituri, teknika, ta egikera osoaren aldaketa sakon bat baizik. Au gertatu izan da beti erti-aro-eraldaketa nagusietan.

Ikus ditzagun orain banan banan aita-turiko nazioetan egin diran lanak.

## III.- ERTI LANAK EUROPAKO NAZIOETAN.

### 1.- Itali.

Batez beste eleiz as-ko dira Italin'n; eta oien artean zaar geiegi. Ala ere beargune aundia sortu da uri aundietan,

inguruko jendetza guzia laisterka datorrelako. Itali'tar arkitektoak beste edozein nazioetakoak bezin ondo gertuak daude eleiz berrigintzari ekiteko. Esan dezakegu, beraz, Itali'n ba-dira-la beste edozein nazioetan baiño etxegille garai geiago. Aalmen aundikoak dira, eta eleiz jasotze ortan asmo bikaiñak ere badituzte. Baiña, eleizgizonen aldetik ez dute laguntasunik aurkitu; batez ere Teoloji gidaritzza nai lukete. Eleizgizon asko, ertilari-naimenaren irrita oiei bidea erakutsi bearrean ixillik daude. Ikusi ditugu orren ondorenak: gaurko Itali'n jasotako eleiz berri asko, auxe besterik ez dira, orma zaarrak apainduri berriakin. Onek galerazten du erlijio-erti egiazko baten bizikera. Ez dugu txarra oraiñarteko eleiz jasotzea zarra dalako, bere garaia joan zaiolako baizik. Ez dugu esan nai orain arteko guzia txarra izan danik, beste gaurko erti berri oni ateak zabaldu bear dizkiogula baizik. Esate baterako, zergatik jarriko dituko ainbat altare, oraindaiño bezela? Apaiz gelegi bagenitu-edo, barroko aspergarriaren ondorenak utzi nai ezik bagenbiltz bezela.

## 2.- Alemani.

Ezin siñetsi ikusi gabe, nazio onek azken urte auetan egiñiko lanak. Fizkor jeiki zan azken gudaketan zigorkada bikaiña artuarren.

Eleiz galetan aldaketa asko ikusi ditu; batez ere. Obispo jaunak, erri-jendea apaizarekin eleizkizunetan alkartu naian egiñiko lanegatik. Au da, gaur doixtar-eleizaren nai kezkatia.

Aldareak jendearengana urreratu dira. Meza-emaillea ere, aldarez beste aldetik jendeari begira jarduten da. Aachen'go eleizan ere, bai Jaunartzeko toki egokia: erdian dagon aldare nagusi bakarra alboetara luzatzen da bide luzean. Orixe bai "Jaunaren Maia".

Berezitasun berri bat dugu leiartzan edo bidrierakin ere. Eztira oraindaiñoakoak bezela, ormigoiz alkartutako kristal lodiz egiñak baizik. Teillatuak lurreraiñoakoak dira geienetan,

garden eta labanak benetan. Margo biziz jantzi-ta antzezki irudiak, egon eziñik, kezkatu, doix-tarren arazo ziztakor guzien azalgai dirudite; nazio indartsu eta nortasun bikaineko onen zer-bait darakusgute oraingo eleiz berri auek.

### 3.- Suiza.

Nazio ontan ez da ain indartsua liturji-zaletasun aurrendaria. Orregatik aurrerapen aundirik gabe dakusgu emengo eleiz egintza. Planto eginda gelditu dira erti arauke-ta geldi baten babesean. Gotzai ta apaiz askori ez die eman ajolik erti berri onek. Itali'n bezela Teoloji gidaritza bat falta zaie ertilari-eri. Ala ere, azaldu dira etxegille garaille batzuk: Heiman Baur ta Fritz Netzger. Lan ederrak egin dituzte. Baita Paul Stockli'k ere, aita-turiko bidriera jasoeran.

### 4.- Prantzi.

Ez da errez emengo erti berria epaitzen; batez ere bere jomuga eta egikeran. Berriketa ugari sortu dute, Vence, Assy, Adicourt ta Rochamp'ko eleiz berriak. Kritika gogorra egin zien Vence'koari, orain urte batzuk. Bost urte geroago Rschamp'koari ez diote ezer esan, askoz berrizaleagoa izan arren. Baiña, egia esan Rochamp'ko onetzaz ere: ez du au liturji-zaletasunak sortu. Eleiz izenaren orde z mu-seo izena ezarri dezaiokegu. Ikusmira egarri di-ranentzat egiña dirudi.

Zer ikusi aundia izan dute Coutourier ta Regmi apaiz dominikak. Gogor jardun dira, "L'Art Sacré" izeneko aldizkariak, ertilari-eri bidea zuzendu naian; bearretsi naian, alegia, e-leiz-gaietan pin jokatu ditezen.

Beste nazio askotan bezela, Prantzian ere, eleiz zaarrak berritu, arindu eta argitu egin dituzte. "Mission de France" izan da gidari; bai lan ederrik egin ere... Lagundi onen jomuga, eleiz gai guzietzaz, berritze sakob bat da. Be-re jarduna erti-alor berrietara ere eldu da.

## 5.- Espaiñi.

Ez da zailla nazio ontako erti-berri edestia egitea. Lerro gutxitan sartu diteke guzia. Espaiñi'ko eleiz-berri jasotzea izakizun omen da oraindik...

Azkenengo g daketa ezkerro nazio au lengo era zaarretara biurtu zaigula dirudi. Igaro dezakegu nazio au Iparaldetik Egoaldera, egungo berriketa ontaz jantziriko eleiz berri bat aurkitu gabe. Noizean bein zerbait azaltzen da, baiña beti bildurrez bailira, berrikeri lotsati batzuk orma zaarrari erantsiz. Zeren bildurra?

Dagon puxka ori ere Iparaldean dager. Joan gaitezen beruntz, ia zer dakusgun. Eleiz zaarra ugari! Ala ere ori beste errurik ez baltz...!

Europa guzian eleiz zaar asko gelditu dira eleizkizunetatik baztertuta. Batzuk museo edo beste zerbaitera biurtuaz, eta ez gutxi lurra jota daudenak.

Ori ala izan arren, Espaiñi'n or gabiltza gora ta bera, autsez beteriko eleiz zaar oiekin; oberik ez baitaukagu otoitzerako. Ara nolakoak ditugun eleiz oietako batzuk: apaingarri gelegi; autsa mardula oro estaltzen; pipiak jandako egurra alde guzietan, mats-mordo, ostozikin, urre-kolore, biotz-ukitu naiko edergaillu galanki; aspergarri gelegi: anima bete ezin ala. Ondo dio bai Lerkaro kardenal jaunak, antziñako eleiz zaar oiek ez dakitela gaurko gaztediaren biotzak betetzen.

\* \* \* \* \*

Bukatzeranoa. Eleiz-berri jasotze onek, utsuneak izan arren, itxaropen alaitsu bat dario gure biotzetara. Europa zaar onek ezin ditzake buru-arinkeritzaz epaitu egungo erti-lan guzi oiek.

Erti onek beste zerbait gorderik dauka: eleizkizun gaietan dabillen naasketa ori nolabait bere laguntzaz erabaki nai dutsu bat.

Erti-aro berri baten asieran gaude. Orregatik ezin ditezke orain egiñiko lanak geiago edertu ezin alakoak izatea. Lana pranko egi ten ari dira Iparaldeko nazioetan. Ala ere, Egoaldetik etorri oi izan da beti irudi asmamen bultzakorra. Italtiti'k sortu da geienean Ipar aldekoen utsune betetze eta leunketa.

Orainarteko eleiz berriak, eder eta esan nai aundikoak izan arren, zerbaiten bearingan deritzaizkit. Nik uste Itali'tarren zai daudela, azken osakuntza lortu naian. Ez da izango lenengoz; len ere izan da bitan gutxienez: XI eta XIII garrenean, Erdi-aroko erti-azal keran lenengoz; eta geroago, "renazimientu" deritzaion XV-XVII'garrengo erti-klasikoaren berpiztean.

Gertatuko berriro auxe bera...? Alaxe uste.

Ulazia'tar Von, ofm.

Erri-Berri'n filosofilari



# APAIZAK NORA...

Ba-da Elizan, ospe aundia izan eta, la aztutzera etorri dan Anaidi edo Ordena bat.

Gaur, ordea, Anaidi orren xedea, ez da-la alperrikakoa ikusten da, apaiz gazter bizitz tankerari bagagozkio. Anaidi onen eta gaurko apaiz askoren bizitzerak, langintzerak duten alkar-ikusiaz nabaiturik, lerro batzuk suzentzen dizkiet YAKIN-en irakurleei.

Aitstatutako Ordena ori, erderaz "Canónigos Regulares" deritzaiona da. Nik euskeraz, Arauduen Kanonigoen Anaidia deituko diot. Eta Anaidi ortako gizoneri: Arauduen kanonigoa.

Anaidi onen arrastoari jarraiki, bere asiera billatzen badugu, laugarren gizaldiraño errez iritxi gindezke. Gure ezagun dan leren katemaila, Vercellis'ko Eusebio deunak ematen digu. Italiako Vercellis'en Gotzai zala (340-370) berak eta erriko apaizak "Vida común" egiten zuten. Ordundik aurrera arrunta da Gotzaien eta apaizen bizikera ori. Adibiderik ezagunena, Agustín deunak Hipona'n darakutsaguna (354-430). Ez baizuan apaiz egiten "Vida común" ori egin nai



etzuanik.

Bizikera ori erruz ageri da laugarren gizaldia ezkerok. Baiña ordura arte? Orrela bizi ziranak, Bidalien egiñetako IV atzalburua dute eredu: "Ainbeste sinisdunen biotza, berriz, bakarra zan, baita gogoia ere; eta iñork ez zion beretakorik ezer bere zunik; guztia guztientzat zitzaien, ordea. Bidaliek Jesukistoren Berpiztea bipilki aitortzen zuten, ta guztitengan eskerra zan ugari. Landerrik aien artean batere ez zegon; beren alor eta etxeak, jabe guztiak saldurik, ordaiña ekarri ta Apostoluen oiñetan jartzen zutelako; eta andik bear aiña bakoitzari ematen zitzaien. Orrela, Bidalien Barnaba (edo berdina Dana Atsegin-seme) goitizena ezarri zioten Josek, Kiper'en yayo ta lebitarra zanak zeukan landa saldu ta ordaiña ekarri ta Bidalien oiñetan jarri zun" (Olabide, Bid. Eg. IV, 32,37).

Itun Berriko zerrenda onek, ba-du bere esanaia. Jesús-kristoren ondorengo 63 garren urte aldera, aldatu degun ori aitortzen bazaigu, geroxeago ere alkar bizitzak iraungo zuala, nork uste ez du. Ez bear bada, ziurki, aipaturiko zerrendak dion bezin ertsia ta zabaldua, baiño bai elizgizonen artean bederik; elizgion batzuen edo askoen artean.

Dana dala, eztabaidarik erabakitzeke agiririk ez dager gaurdaiño. Ipotesis bezela 'gure iritzi koskorra azaltzea bazaigu, ordea, berriz esan, ba-zirala bizikera ori zeramakiten apaiz-taldeak, genioke. "Esenios" deritzaien erlijioso oiek, ez ote dira neurri batean, alkar bizitza neurrian alegia, adigarritxo bat?

Jarraigun IV garren gizalditik aurrera, apaizen alkar-bizitz onen berri ematen; noraiño dijoan, nola ta zergatik puskatzen ikusiaz.

Agustin'en Hiponako alkar-bizitzak ondorenetan ere aberatsa zalarik, gotzai ugari eman zizkion Elizari. Gotzai auek, Agustin'en eskolako umeak izaki, Maixuen ikasiak eredutzat jorrik, beren bizitoki berrietan: Italian, Galian, etab., "Episkopio" berriak eraiki zituzten. Oietako bat, Julian Pomerio, 450 aldera, Arles'ko gotzai dakusgu.

Gregorio Aundia Aita Santuak (590-604), Inghaterrako Apostolu Agustín deunari, arren erregutzen dio, lurralde artako elizgizonei, Elizaren asierako biziera jarrai arazteko. Eta bere aolkuaren oiñarritzat, Bid.Eg. IV azalburua dakar.

VII eunkadan, Toledoko Elizbatzar orokarrak (675) bakarrik aipatzen du elizgizonen alkar-bizitz au. Zortzigarrenengan berriz, Kontzilio ta Sinodo oroen leloa bera da: elizgizon guzien alkar-bizitza. Garai onetan, Karolingioak agiri dira Europa gelineko agintari, ta klerigoen alkar-bizitz ori gogo zaiela esateko, naiko da beren indar eta eskubide guztia, Elizbatzarretako erabakiak betearazteko eskeitzen dutela, jakitea.

Orain arte araudiren bearrik etzan. Norberaren borondatea aski, gotzaipean elkarbizitz egokia eramateko. Orain berriz, elizgizon guztiak bizitz orretara beartu nai diranean, lengo asmota ta gogo on aiek ez dagertz iñundik. Eta danantzako araudi bat antolatzen da Aix-la Chapelle'ko Elizbatzarrean (816), Metz'ko Krodegango Gotzaiaren oiñarri ta eredu dala. Bizitza zeazkiro zuzentzen duan araudia. Zeatzegi, apaiz batzuei ez artzeko. Baiña, duan bigarren akatxa, askoz aundiagoa da: bakoitzari bere ondasuna uztea, alegia. "Dana danantzat"ura, gizon aientzat gogorregia omen zan. Ta arazoari buruz: "Nostris temporibus persuaderi non potest", dio. Alkar bizitza osoro eraman nai dutenen arloa, berriz, Gotzaien eskuetan uzten da.

Onela antolatutako alkar-bizitzak, ia eunkada batean dirau, Karolingio altsuak agintari dirala. Oiek 789'an emandako lege batek alazon: "Qui ad clericatum accedunt volumus ut illi canonicè secundum suam regulam omnimodis vivant".

Garai artan, len ere erabillitako "canonici" itza, arrunta biurtu zan, eliz batean serbitzeko itza emana zeukaten apaizak izendatzeko. Edota eliz orretako "canon" edo matrikulan idatzita zeuden gizonak señaletzeko.

Kanonigo auen biziera ta ordungo mon-

jaena, berdintsua izan bide zan, guk ezezik, berak ere kanonigo ta monjeak, ez baizuten gogagabirik izan bear arloari buruz, Karlomagno'k Tours'ko Martin deunaren konbentuko klerigoei, onoko au esateko: "Aliquando enim monachos, aliquando canonicos, aliquando neutrum vos esse dicitis".

Apaizen bizikera au oso zabaldua dager bederatzigarren mendean. Esandakoaren adibidez, Italia'ko Katedral auetan: Bolonia, Ferrara, Gubbio, Torino... Frantzian: Avignon, Besançon, Bruges, Chartres, Cambrai, Metz, Toulouse, Tour... Espainin: Sevilla, Zaragoza...

Danok dakiguna da amargarren eunkadako elizgizonen lur jotzea. Erri-agintariak, etzegokien arloan aurreraegi joanik, bereganatu dute elizgizonen aukeratzea. Ta noski, merezi etzuten asko, klerigo biurtu dira. Eta gero, Simonia, konkubinato ta oiek nagusi. Ots: anarkia. Gauzak ola, nola iraungo klerikoen alkar-bizitzak? Ba-dira alare, gutxi izan arren, gau illunean zeruko izartxo batzuen antzera, elkar-bizitza osoro daramakiten etxeak.

"Burni-aro" onek asko ezin iraun nunbait, eta ondorengo gizaldikoak bizikera egin ederretsi, ta berritzeari gogor emanak dakusguz, Cluny'ko fraideak gidari. Klemente II Aita Santu dala berritze onek gorenen aulkia ere irabazi du. Une ontatik, Aita Santuaren eginkizun berezi auen artean, lenengo bezela dager elizgizonen zuzentzea. Ba-du laguntzaillerik pranko, gartsuenak Pedro Damian deuna ta Cluny'ko Hildebrando aundia diralarik. Aien ustez, ordea, zuzenbide bat besterik ez da: elizgizonen alkarbizitza; baiña "dana danana" dala, iñork ezer bererik gordetzeke. Ara emen 816'ean Frantzi guztirako Aix-la-Chapelle'an eman zan araudiren bereiztea: "Dana danana" izan zedilla. Oraingoan, xeetasunetan sartu gabe, au agintzen da: elizgizon guztiak, iñork bererik gordetzeke, alkarbizitza egin dezatela (Erroma'n 1059'ko Eliz-Batzarraren erabakia).

Cluny'ko Hildebrando Elizaren buru izatera eltzen danean (1073-1085), indar berritu-

rik darraio len zekarren lanari. Eta onela zema-  
tzen ditu, aren esanetara jarri nai ez dutenak:  
Ez daukazute beste biderik; edo elkar bizitzari  
ezarri, edo zuen ondasun-bidea (prebenda) Gotzai-  
en eskuetara itzuli". "Quod si neutrum, quod  
absit, facere recusatis ex autoritate Dei Omni-  
potentis et sanctorum Apostolorum Petri et Pauli,  
omnium ecclesiarum introitum vobis, usque ad  
emendationem congruam, prohibemus". Olaxe leun-  
-leun zuzentzen zaie Hildebrando aundia.

Gaitzak, ordea, lan aundia dauka egiña,  
eta ezin zuzenduko dira guztiak. Eta puskatuko  
da gaur oraindik puskatua arkitzen dugun apaiz-  
-taldea.

Alkarbizitza oso-osorik besarkatzen du-  
tenak, "Arauduen Kanonigoak" deituko dira. Alkar-  
bizitza gogorregi dirudion taldeari, "klero se-  
kular" esango zaio. Azkeneko auek Katedral edo  
kolegiata bateri ezarriak baleude, berriz, "ka-  
nonigoak" soil-soillik deituko zaie. Batzuen bes-  
teengandiko bereiztasuna, orixe izango da, ba:  
alkarbizitza edo ez.

Ara orain garbi, edestiari esker, "Arau-  
duen Kanonigo" bi izenide, sinonimo oien esanaia:  
"kanonigo" dalakoa, danana ta aspaldi aspaldikoa;  
"Araudun" berriz, bereiztale.

Amaikagarren mendetik gatoz, ba, nor-  
bera bere bidetik. Gaurdaiño bata bestearen be-  
rririk gabe ta oso aldenduak. Baiña "klero seku-  
lar" esan dugun ori, bide berriak urratzen ditua-  
lakoan-edo, zaarretara jotzen ote duan gaude.  
Ekipoan lan egiteko gogoa-edo, nabari da nunai,  
gazteen artean batez ere. Ta gogoa ezezik, egin-  
tzak ere ugaritzen dakusguz.

Bestalde, arauduen kanonigoak ere,  
praille bizitzari zeozer utzirik, apaiztasunari  
gero ta emanagoak arkitzen ote ditugun, esan li-  
teke.

Bi zatiak, inguratzera, alkartzera ote?

Baiezkoa diote gaurko joerak, eta sin-  
tesis ori noiz lortuko gaude, guztiontzat ori  
dala onena uste dugunok.

Lasa'tar Prantzisko  
Araudun Kanonigoa.

# MAINDIRE SANTVARI BVRVZ

Idazpuru onekin, euskaldun guzientzako iralurkizun batzuk asten ditut. Sarritan itz egin aal izan du "Cultores Sanctse Sindonis"-en Españi'ko ordezkariarekin; eta bein batean, YAKIN aldizkariaren irakurle denentzako, Maindire santuari buruzko zerbait idazteko asmoa artu nuen.

YAKIN aldizkariak zalantzik gabe artuko dituela uste dut idazki auek, gaurko egunean ainbeste garrantziko ta erabillia dan ezkerero. Bere ezagutzeak on asko egingo baidie deneri.

Aita Iriarte'k, Madrillen emandako konferentzi on batean onela zion: "Gizon jakitunak Maindire Santua begietsitzean, Jesukristo'ren pasio idatzi balute Kristau biziak asko aurreratu luke".

Alderdi bereziak aztertuz ibilliko naiz jardun auetan -gaia ain eder eta ugaria da, izan ere- kristauaren zaletasun nagusi dan Jesukristo Salbatzaillaren Pasioa, Euskalerrian zabaltzeko elburuarekin. Jesukristo nola zan ezagutarazi eta ezagutu ondoren maitarazi. Orra nere elburua.

Maindire Santuaren deskribioa albora utziko dut, denok ezagutuko baiduzute noski.

Jardun auek sindonologo aizun bat ezagutzera emanaz, astea onurakor dala uste dut, Txunditurik jakin baiguenen Españi'n norbait, arean bere onean, begikatzen du bururakizun sindonologo aizun orrekin, izenez Hans Naber.

Jesukristo'reh errebelazioak izan dituela esaten du, eta Gurutzean etzutela il, jaio, berri, Amerika'n. Maindire Santuari buruz liburu batzuk argitaratu ditu, ta bere asmoak baiestekoa, berak ezagutzen ez dituen jakintsuak aipatzen ditu.

A. Werner Bulst'en irakurkizun bat itzez-itzez emango dut. Atzerrian idazpuru onekin argitaratu zan: "Sindonologo aizun bat".

#### 1.- NOR DA NABER BERNA?

1954'gn. Magonza errian argitaratu zuen "Das fünfte Evangelium" liburua, Kurt Bernak egiña. Iru urte geroago, 1957'gn. beste alako Hans Naber'ek Stuttgart urian argitaratu zuen "Das linnen" liburua. Bi oek Torino'n gordetzen dan Maindire Santu edo "Sindone"-etzaz itz egiten dute.

Izengoitiz Kurt Berna, baiña berezko abizenez Hans Naber da. Bere lanetan Berna'k A. Santu Pio XII'ri idatziko ziokean eta egiñeak berak zabaldu zuen gutun batean artzen ditugu argibideak.

Hans Naber [Kurt Berna] 1936'an ikastola utzi ta jatetxe batean sartu zan kamarero bezela. Guda bukatu, idazten ez, baiña gerra ondorengo lan denetara saiatu zan: fotografi-lanetan eta kafe, tabako, ta edari biziak sal-erosten jardun zuen. Langintzaz kamarero da. Ez da gizon jakintsua ta ikastetxe nagusian ibilli ez arren, idatzi du.

1947'an Jesukristo'ren errebelazioak izan zituela dio ta zazpi gau ta egun igaro zituela lo egin gabe. "Film batean bezelaxe, ikusi nituen nere begien aurrean gertari denak... askotan, siniskaitza badirudi ere, lur zear ikusi al izan nuen". Azkenean Jesukristo'k "bere ixillikakoa"

agertko zuen: "Ni ez naiz gurutzean il...lantzak etzuen nere biotza zauritu, ezta zeartu ere". Arrazkero, lantzak sartzean egindako zauria ta irteerako zuloa Torino'ko Sindonean nabari ditula baieztatu du Naber Berna'k. Jesukristo illobian bizirik ipiñia izan bide zan ta onela esplikatzeko du pizkundea. Naber Berna'ri geroko errebelazio batean jakinaraziko zion: "1947'ko neguan Jesus aurra Amerika'n jaio zala ta Auronetan bizi zan Jesukristo'ren notiña". Aita Santu Pio XII'garrenari asmatuak jakinarazi zizkion eskutitzean barreatzen du au. Alako errebelazio asmatuak edozein komentario sobera dutela uste dugu.

## 2.- NABER BERNAREN ARGIBIDEAK.

Lenbiko liburuan berekaxa ikasitako gizona bezela agertzen bada ere, bere jakintza-prentensioak askotxo nabarmentzen ditu, eta irakurlea aitzin du ez bazaio, aren asmoak kutsatu dezake, sarritan gora jotzen baidu eta gizon jakintsuen agintaritzari esku ematen. Esate baterako, Von Siegmund irakaslea (Fulda'n Teologi katoliku irakaslea), Von Campenhausen (Heidelberg urian Teologi protestante irakaslea), Reissner irakaslea (Stuttgart urikoa). Neronek irakasle auei galde egin nien eta Naber Berna ta bere asmoekin zerikusirik, artu-emanik, ez daukatela aitortu zidaten.

Bigarren liburuan Naber Berna zuurkiago jokatu da, izen gutxiago aipatzen ditu; ta bere argumentuak jaulkitzea naiago du "ixillika-ko adimen trustean" jendeak bereganatzeko. Alaz ere, Naber Berna'ren liburuan jakintsuak mintzatzeko dira -alako Kolonia'n Ikastetxe nagusiko Hirt irakaslea, Ernst bere asistentea ta Giuseppe Rillardo Korgregazioko Kardenal-Idazkari-irurek berak asmatuak. Maindire Santuaren kondairako albisteak okertu egiten ditu, eta eunaren propiedadeak azaltzen ditunean, Hynek txekar sendagillearen liburuetakoa aipatzen ditu. Sendagille au Sindoneko ikaskuntzale aundia zan noski, baiña eun gaietan etzan jakituna.

Naber Berna'k bere liburuan sendagintzako argibideak ekartzean egiten du bere ustearen zabalkunde geiago, baiña radiologo sendagi-

llearen aburuak aipaturik Sindonologi gaia e-  
derki ezagutzen duela adierazi nai badu ere, ar-  
gibide auek gizon orrek sendagintzako galetan  
ere tutik ez dakitela bakar-bakarrik argitzen  
dute. Adibidez: Naber Berna'k ez daki torxasko  
erradiografi bat ongi irakurtzen. Oraindik ez  
da oartu saiets ezurreko makoak bularrekoak  
baiño argiago agertzen dirala erradiografian;  
ezta auek besteak baiño beerago dituala ere.

Ondorioz sorbaldan jartzen du lantza-  
ren irten-zuloa, eta onengatik bereizirik saie-  
tseko zauri iraila askoz gorago ipintzen du Main-  
dire Santuan. Naber Berna'k gezurretan asmatzen  
dituen lekukoetatik biotzean lantzada bat lor-  
tzea arras eziñezkoa izango litzake. Ortik da-  
tor gero Jesukristo'ren eriotza ta piztuera u-  
katzea.

Odol pikor gogorak, bekoki eta beso  
aldean bereziki dirala-ta, gurutzetik jetxi on-  
doren Jesukristo'ren gorputzean ibilli zela bai-  
etsi nai du Naber Berna'k.

Buruan ez du izan larru gaiñean ixur-  
tzen zan odol zuzenbidea; Naber Berna'k argibi-  
detzen duenez, grabedade legeak ez zik, beste  
zioak ere, esate baterako, azal gaiñeko odol  
igortzipenak men egiten ditu.

Sendagintza jakitunak orainarte Sindo-  
neari buruz posizio ona artu dute, ta odol aztar-  
na deritzan oiek, Sindonean zuzenik ixuritako  
odolarenak ez dirala adierazten dute gogo batez;  
larru gaiñean geldi-geldi bildutako odolarenak  
baizik. Aztarna auek nola dira ezagunak?  
Eriotz orduko odolaren amoniakoari esker dala  
azaltzen digu Vignon biologu ta irakasleak. Eta  
Barbet ebakizalearen iritzian, odol bilduan  
illobi barruan atmosferiko ezetasunagatik bigun-  
du egingo zan eta orrela Maindirean bere aztarna  
utziko zuen.

Naber Berna'k gogo duen elburua lortu-  
tzeko ezker eskuaren erretrato baten garrantzi  
aundia ematen du; baiña bere liburuan argitara-  
tzen dan erretrato ori aldi onetan egindako bes-  
te original benetako batekin bekaldatzen badugu,  
Berna'ren erretratoa, egillearen iltzatuari bu-



ruzko ipotesiari indar emateko elburuaz, zertxobait aldatua izan dala zalantzarik gabe agertzen da.

Naber Berna `ren idaztietan argi agertzen dan bezela, buru arin obaritan ari izatea nai dun batentzat ez da lan atsegina. Ala ere, bere gezurrezko baitzak batzuentzat sinismenaren aurka-koak dire; besteak berriz, Naber Berna `k beroiekin Santa Sindonis argibidetzea nai duen ezkerero, irakurleak gauza auek ezagutzen ez dituen bada, kutsatu dezakete. Ta zoritxarrez, ustekabean Alemanian kutsatu ditu, izan ere askotan jakintsuak aipatzen ditu, baita Aita Santua bera ta Go-tzaiak ere.

Zio onengatik, ba, saiestu ditezkenak zuzentzeko, lerro auek argitaratzea bearrezko zala uste izan dut.

Irakurleak Santa Sindonis onetzazko berri geiago nai baditu, idatzi beza zuzenbide ontara: "Cultores Sanctae Sindonis", San Hermenegildo, 27. Barcelona.

Barcelona `tik

Botantz`dar Xabiertxo Marik

(Karmeldarra).

# ROMANO GVAR- DINI'REN ESTE- TIZISMOA

Idazti bat, egille bat "arkitzea" benetako zoriona da. Geienak berri gutxi erakusten digute. "Arkitzeak", aurrena izan, inor ezagutzen ez duan idea ta sentipenezko mundu berri batekin ustegabeen topo egitea esan nai du.

Baina oraingo ontan berandu nator. Nere aurretik askotxok itz egin dute Romano Gardini'tzaz. Aqibat diranez, iriginala ez izateko arrisku aundia dut. Ia bere itzulpen bakoitzaren itzaurrelari geienak, beratzaz luze eta lasai itz egiteko bultzada bizia sentitzen dutela esango nuke. Eta batzuetan omen emanaz; betio biotzez eta bero. Orregatik Romano Gardini'ren liburuetako itzaurreak luzeago izaten dira askotan idaztiak soilik baiño.

Eta orain nator ni, ainbesteren atzetik: apaiz agurgarri onengana urbiltzera dijoan ikasle bat geiago.

Bear bada aski egingo nuke R.D'Harcourt' en "Esprit de la Liturgie"-ri ezarri dion asierra ederra laburtzearekin, edo-ta Felix Garcia'rena, edo Alvaro D'Ors'ena. Baiña ez, naiago dut nik nerez itz egin, nere mutil edo gazte-sentipenari eragin didan bezela. Biotzez iritzi, bear bada geiegikeriarekin. Onela errexago da agian, baiña biziago, egiago. Seguruki ez dut emango

ikuspen osoa; liraindu egingo dut, maitearen nortasuna idealizatzen dugun eran.

Guardini'ren gogo zabal eta orokor-rari atsegin izango zaio gazte bat gelago bere inguruan urbultzea.

Gogorki zigortzen du Guardini'k bere idaztietan gauzaren izaera jatorra okertzen duan estetizismo uts eta belaxka ori. Eta ala ere, susmo bizia dut ez ote dan ari, ber-bera, joera orren aurka, arengana biziro bultzatua izango balitz lez.

Esate baterako zenbat alditan erabil-tzen du ritmo itza? Ritmoa da, izan ere, izadia-ren espiritua, munduarena eta gauzena, ertiaren eta edertasunaren aldetik begiratzen bazaie. Guz-tizko estetizismo batek bere erdi-lekuan ezarri-ko luke. Sentipen-estetiko oroen muiña dugu. Gau-zak, armonia dutelako, dira ederrak; ritmoak (zenbat eta itxura gutxiago obe: konpasa duzu ritmoaren azalkizun gogorrena) ipintzen du armo-ni ori gauz oroetan, izadiaren ritomo aundi eta geldia; naturaren gora-bera neurriduna; gau eta egunaren ritmoa; aizeak emeki darabilzkin zuai-tzetako ostroen ritmo dardartia, emea; Van Gogh' eren "Gaur Izarditsua"-re. indarrezko eta amor-ruzko ritmo bizia; margo eta linearenak, laukoï abstraktu batean; argiaren, zabaltasunaren, eta aizearena, paisaje idekian, zabalean.

Guardini'ren idaztietatik (momentu iru-tan pentsatzen dut bereziki: "Cartas desde el lago de Como" "Les Signes Sacrés" eta "El Mesia-nismo en el Mito, la Revelación y la Política") ritmoaren teori sakon, ederra eraiki liteke. Az-kenengo orretan, adibidez, antziñeko munduaren Jainko-sentipena (aldi artan zeukan zabaltasun eta esanai osoakin) ritmoan jartzerañño ausartzen da.

Gure bizitza ritmoetan dijoa. Bizitz-eriotzaren ritmo guztizkoaren pean gu ez gera onda bat baizik: olatu bat amaigabeko itxas gai-ñean. Egia esateko endakiaren bizitzak dirau soillik: gizaki bakoitza denaren zati txiki bat besterik ez da. Salbazio-kontua ritmo ontan jira-

-biraka dabil.

Gure sentipenak, aiek berak, izadiaren ritmoaren adierazpenak dituzu. Baiñan nai ta nai ez goibeltasunak estaltzen ditu guztiak, be-  
ra bear samin batera itzuliak daudelako ain zu-  
zen, etsipenik gabe, bear bearrean: bizitzatik  
eriotzera, argitik (eguzkiaren berotasunetik)  
arratsera (illargiaren erreiñu itzalera), itxaro-  
penezko birloratzotik, igalien ximeltzeraiño.

Antziñako erlijioak ritmo onetan oretu-  
ta zeuden. Kristo'k dakarren erlijio berriak be-  
giratzen gaitu izadiaren beso lilluragarrietatik,  
itxuraz bizitzaren sentiduz ain betea. Kristo'k  
eten du bizitz eriotz ritmoa. Berak damaigu bizi-  
tza erio gabe, argia itzal gabe.

Guardini'ren olerki-giroa, munduaren  
sikologi-azalpen batera itzulia, bere gizabidea-  
ren alde aberatsenetakoa da. Muga berriak argitzen  
ditu bere pentsamentuan.

Dana dala filosofia, metafisika, egite-  
ko era berri bat da: P.Caba'ren ustean, egungo  
filosofia olerkira urbiltzen dioa; geiago diru-  
di lirika bat, adimenezko ari-utsa baiño. Oroitu  
ditzagun Jaspers, Heidegger, Marcel, P.Caba gure  
artean. Gaurko idealistentzat ertiaren garran-  
tzia ezin aundiagoa da. Filosofiaz gaiñetik, al-  
ditan bere tikotan jartzen da. Ertiak mundua a-  
gertzen du.

Sentidu au dauka Guardini'rentzat.

Zorionez, ederki bereizten daki minkun-  
dekeria sentipen garbitik, samintasuna tragedia-  
rengandik, "kitsch" naskagarria arte jatorragan-  
dik.

Emen edonun bezela, berria ta sakona  
da bere burutaldietan. Errexa ta eskukatua gorro-  
to duela dirudi.

Romano Guardini'ren gizabidea ( eta  
onetan uste dut oinarri dutela bere erti-idearen  
sendotasuna) mundu klasikoaren ikuspen argi bate-  
gaz indartzen da. Ala ere ikuspena gertua dauka  
edonoz, mundu aldakor oneri edozetara jarraitze-  
ko. Ots, beregan alkartzen dira, ederki alkartu  
ere, estetikaren betiko bi joerak: beti diraun

estetika eta gauz aldakorren estetika; begi biz-tan, abiada osoan aldatzen dijoanarena: orainaren estetika dinamikoa. Ertiaren goitik-berako sentidua: lege orokorrarena, edonun eta edonoiz balore duna. Eta aldetik-aldekoa: eraberritzearen eta asmamenaren zio bizia duna: beti berria, beti diferentea.

Biotzez maite du mediterrane aldeko espiritu klasikoa. Ango lur beroak, eguzki dir-daitu batez bizi-ziro piztuak (oroitzen dituzu "Cartas desde el lago de Como"-en pintatzen di-tuan zenbait paisaje zoragarri?) Ala ere ez du iges egiten gure mundu labain ontatik. Gure ar-tean dabil gaurko munduaren problema sakoneri bular ematen. Gogo argiarekin egungo bizierak eskatzen duan gizabide berri baten bila: izadia-rekin kontaktu berri bat asmatzen.

Egungo teknikak egin duen iraulketa da seguruki, klasikotasunak zeukan bizitz-sentipe-naren (geldia, naroa, segurua) aurkakizun gorriena. Au ondo daki, jakin ere, Guardini'k; baiña bildu-rrik gabe onartzen ditu gizonaren aurrerapenak, oroimen zañreri begiratu gabe.

Guardini'ren estetizismoak ez dauka (ala pentsatu baduzu ere) itz oneri geienetan alderatzen zaion okerra. Teologoa ta gizabidezalea gaitetik dijoaz. Lenago adierazi dut. Ertia-ren bidez, bide bat bezela artuaz, guztizko auzia garbitzen du: munduaren auzia, ludiaz aruntzago dijoanarena, eta denak iraultzen dituan kultura-ren problema.

Dударik gabe au izan da Romano Guardi-ni'ren estetizismuak erakutsi didan ikaskai sako-nena: ertia ez dela lanbide bat, ez dela bere gauztasunean amaitzen den praxis bat. Mundua "arkitu" eta argitzeko bidea izan liteke: zuzene-na bear badaberarekin gorputz-gorputz ipintzen gaituelako, izadiaren sabel naroon murgilduaz.

Mikel Santiago Anaiá, Lasalletarra.  
- Salamanka'tik -

# BIZITZAREN AGERPENAK

- Jarraipena -

## III.- AFEKTOZKO BIZITZA.

Afektozko bizitza da azkor-aroan punturik elkorrena eta zailena. Afektozko bizitza ez da azten eta azkortzen berdin persona guztitan; kontrarioz, persona bakoitzagan martxa desberdiña eramaten du. Eta zergatik gertatzen da onela? Begira, errez ulertzen da. Persona bakoitzak nolatasun bereziak dakartzi jaoitzetik; bestaldetik berriz, bakoitza auzo diferentean bizi da ta orregatik ambiente diferentean, eta danok dakigu ze alderdi billatzen dan, esate baterako, kaleko ta baserriko mutikoen artean. Datu auek naiko ditugu arazo edo problema onen zailtasuna ulertzeko edo beintzat problemaren zailtasuna nuñdik datorren jakiteko.

Beste gauzetan, gutxi gora bera danak berdin jokutzen dute; emen ez, ordea; arazo ontan bakoitzak bide bereziak daramazki.

## LENENGO AGERRALDIA. Bost urte arte.

Jaoiberriaren biozkada guztiak miñezkoetan sortatu ditzazkegu eta garbai edo sentimentu oiek negarrarekin eta orruekin agertzen ditu umeak. Gar-

bai alai ta atsegiñak urrengo illetan datozkio ta atsegin au irribarrez, algaraz eta gorpuzkien mobimentuz adierazten ditu.

Lenengo manifestazio auek berezkoak dira. Adimenaren aztarnik ere ez dauka oraindik; dan-danak berezkoak dira, aberetxoena bezela. Manifestazio oiek animarenak dira ta prozesu organikoekin bat eginda daudelako, kanpotik ere agertu egiten ditu.

Iru, lau, bost urtekin aurrak afektozko bizitz arrigarria dauka ta guztiz berekoa. Aldameneko guztiak bost ajola zaizkio berari; beretzako ta beregan bizi da, mundu guztiaren nagusi bailitza. Ala ere, errex aztertu ta esplikatzen da. Aurrak alde batetik kontzientzi extua dauka, bestetik momentuko bizitza bizi du, orregatik dana beretzat nai du: gutxiegi izaten ez badu ala ere!

Manifestazio onen nolatasun edo karakteristikak auethek dira: afektozko reazio beroak eta denbora gutxikoak, zirika berri baten aurrean reazio azkar bat, eta egoera batetik bestera errex pasatzea.

Geldiro-geldiro afektoak bere buruarekin txertatzen ditu eta zipozkeria ta arrokeria azaltzen asten dira aurragan. Geruxeago, lotsa ere, berekixa bezela, etorriko zaio, eta laugarrengo urtearen azken aldera gaizki egiñaren damua eta damuarekin batera oker egiñaren bildurra ere sartuko zaio.

Garai ontan umeak aliamenekoekin eukitzen asten dan erlazioak ezin ditzazkegu Freud psikoanalistak esplikatzen dituan bezela esplikatuta. Izan ere, Freud jaunak, dana "libido" berezi baten bidez esplikatzen du; baiña au gutxi jakittea da ta asko esatea. Ez gaitzatela, ba, teori aprioristiku auekin engañatu, beste amaika engañatzen dituzten bezela.

Dana dala, erlazio oien esplikazioa ematen ez dakigula esanda, auzer bakarrik artu bear dugu ziurra bezela: garai ontan sinpatia ta antipatia azaltzen ari dirala pixkana pixkana; eta jazo edo kasu batzutan apeta edo zeloak ere bai. Askotan uste oi dugu ankerrak eta biotz gogorrekoak dirala umeak. Baiña aur-adimenaren es-

tutasuna ikusita, egoismuak, ontasunak, maitasunak, bakaizkeriak eta beste orrelako konzetuak ez daukate esanai berdiña gizonei edo umei ezarritakoan. Ain zuzen ere umea geienetan inpresionista da; inpresio aundierna ematen dionagana itzultzen da besteri kontu egin gabe. Orregatik momentu batetik bestera gauza diferenteakin dago. Askotan matrailletako malkoak legortu baiño lenago, parre-algara izugarriak egiten ditu. Eta au zergatik dala uste duzute? Ona emen: umeak ez dauka oraindik "masa encefalika" esaten zaion xistema nerbiosko parte ori bear bezela azkortua; onegatik, artzen ditun inpresioak ezin dute zaiñik bota ta orregatik aldatzen dituzte ain azkar inpresioak.

**BIGARREN AGERRALDIA** Seitik amar urte arte. Onen berezitasuna zera da, aurraren gizarterako zaletasun ta joera icugarria; lagunekin beiti jolasean ibilli nai du umeak eta lagunak aukeratzeko ez da fijatzen geienetan ze kualidade dauzkaten aldamenean ikusten ditun bere parekoak. Maiz, lenengo alkar ikusten dutenetik adiskide biurtzen dira, leendik lagunik ez daukatelako edo urruti daukatelako t.a.

**IRUGARREN AGERRALDIA** Bizar-aroa, pubertatea. Len ikusi gendunez, umeak aro ontan, gorputzeko azitze ta azkortza aundia egiten du ta onen ondora bezela arazo asko sortzen zaizkio, esate baterako, sesu-arazoa ta problema onek influentzi edo eragipen sakona dauka bere animagan. Gero animaren azkortza dator eta orregatik leen kanpotik zerabilzkin ajola guztiak burrura aldatzen zaizkio. Onezaz gaiñera, zaarragoen konpresio ezak gazteen problemak aundiagoak ta ugariagoak egiten ditu. Askotan baztertuta uzten dituzte gazteak garai ontan, iñoiz baiño laguntza geiago bear duten garai gaizto ontan. Orregatik gaztea errealidadetik kanpo erden da, beregan, bere baitan sartzen da, bere afektozko mundu garratz jaioberrian.

**LAUGARREN AGERRALDIA** Amalau-ogei urte. Gaztearoa. Gaztearen afektozko bizitza bi faktorek osatzen dute: leenen maitasunak ta bigarrenen



oraindik ezagutzen ez duan zerbaiten naiak, zerbait ori ezagutu ta lortu naiak.

Gaztea beti berrizale; gaztea bere ametsekin, idealekin ta leiadura izugarriekin, gauza berrien atzetik dabil beti.

Orain aroa txepela deritzaio, etzaio batere atsegin eta bizi duan momentuaren aurrean bakarrik sentitzen du bere burua. Orregatik gorrotagarria irizten dio txepeltasun oni eta muturrean joko balu bezela min ematen dio. Etor aroak, berriz, ardura damaio ta orain daukanarekin naigabetuta eta eskutan ez daukanaren naian goibel biurtzen da edo bestela oso bigurri egiten da, baiña onela, egoera ontan ezin dute iraun eta beste persona batengana jotzen dute gaixo dagona medikuarena bezela, bere zoritxarrak ontatzera, ordainez indarra eman dezaion eta piztu dezan bizitza berri batera.

Baiña xelebria da, gaztearen goibeltasunak oiñarririk ez dauka ezeregan, orregatik nik esango nuke ezerezean dauzkala sustraiak. Ain zuzen ere oietako sustrai bat zera izango litzake, berak bere buruari artu dion konzeptoa eta beste bat, bera bakarrik dagola munduan sufritzen duna uste izatea. Ager aldi au danak pasatzen dute. Aita Gemelli'k dio: Eguneroko guztietan agertzen dala onako au: "nork esango ote lidake zer dan goibeltasuna? Ez nau ezerk betetzen, zerbait palta dut biotzean eta ezdakit zer dan palta zaidan au." Bestaldetik berriz, gezurra dirudi baiña egia da, gazteari goibeltasuna nagusitzen zai-onean, goibel dagoneko uné au oso atsegin egiten zaio, orregatik bere barruan artzen du explikatuz eziñezko poz aundi bat. Au da egia.

Asebete eziñarekin batera, inguruan daukanenganako deskonfiantza eta kezka ere sortzen zaizkio. Au ere gauza arrigarria da, gazteak orain bear du konfiantza euki ta berak apropos ez artzen. Au arrokeriaren azi bat da; askatasuna ta esi guztien gainetiko libertade naiak sortzen dizkion aziak. Azkenean gauza auek danak, ots: goibeltasunak, asebete eziñak, libertade naiak tab. ... adiskidetasunera daramate gaztea. Baiña adiskidetasun onek ba-dauka bere berezitasuna eta zera da, gazteak garai ontan ez duala

billatzen adiskidetasuna lagun orri laguntzearren, bere aultasunagatik baizik, bere buruak lagun baten bearra daukalako baizik. Bere burua beste baten maitatua, ulertua ta zuzendua ikusi nai du gazteak. Orregatik bera baiño zaarragoa dan bati bere arazoak kontatu naiez irrikatzen egon oi da. Eta uste osoko bat billatzen duanean bere kontuak ari esatea bai atsegiña izaten zaiola.

Laguntzaren beartasun onek askotan beste sexuko personekin maitasunezko relarioak artzera bultzatzen du, baiña maitasun au ez da aragizkoa, espirituzkoa baiño eta idealistarra eta orregatik garbia, garbitasun ontan jarraitzen badiu ondo egingo dio relazio onek.

#### IV.- GIZARTEKO SENTIMENTUAK

##### LENENGO AGERRALDIA.

Amar urterarte. Zortzi urte baiño lenago, aurra ez da gauza gizarteko relazioak kontuan artzeko. Beraz, manifestazio ontan aurrak bizi ditun gizarteko relazioak, beste persona batenganako afektozko relazioak besterik ez dira. Umearen altruismoa egoismoa da. Orregatik, auerrak ez du inor maite bere maitasuna inori zor diolakoan, bera maite dezaten baizik. Aurraren lema auxe da: ongi egiten didazutelako maiteko zaituet.

Lenengotik bere amari bakarrik dagio irri. Gizartekotasunaren aurrengo izpiak, lenengo urtearen azken aldera agertu ci ditu, beste personekin jolascan-da asten danean. Garai ontan orobat asten da bere kidekoekin lagun izaten. Gero mintzoa agertzen zaionear bere modukoekin itzegiteko ta alkar artzeko erabiltzen du erabiltzen du gizarterako sortua danez. Eta gizartea nola sortu dan eta ze nolako mienbro dan ikusteko naikoa da bere jolasa ikustea. Ain zuzen ere lenengo bakarrik jokatu du, gero bera baiño zarrago diranekin ibiltzea gustatzen zaiu; irugarrenez lagunak osagarri bakarrik ditu, bera nagusi ta lenen: laugarrengez, bere kidekoekin asten da.

Ikusi dezagun orain zortzi urtekoaurraren gizartekotasun asiberria. Ortarako egokiena,

bere jolasaren karakterak astertzea deritzait. Le-  
nen, aurrak ez du inor artzen laguntzat aukeratuz,  
kanpoko faktoreak bultzatuz baizik. Esate batera-  
ko, eskolan ondoan daudelako edo etxeak oso urre-  
an dauzkatelako. Bigarren, aurrak ez du bein ere  
begiz jotzen geien balio duana, momentu oietan  
geien agertzen dana baiño. Irugarren, aurrak naia-  
go du bera baiño zarrago diranekin jokatu, orain-  
dik imitazioz bizi baida. Laugarren, aurrak iru,  
lau urtekin, jolaserako bakarrik batuko dira.

**BIGARREN AGERRALDIA.** Bizar-aroa. Pauso  
bat geiago ematen du, gizartean sakonago sartuz.  
Garai ontan gizartean sakonago sartzen dala esan  
dut ta ain zuzen ere alaxe da. Gazteak momentu on-  
tantxe dauka soziabilidadearen momenturik goxoe-  
na. Ta gaiñera bere afektozko ta gogozko disposizi-  
oak borondatearekin kontrolatzen ditu orain; orre-  
gatik soziabilidade garaituena oraintxe dauka.  
Gaztearen gizartea, eskola ta lagunak dira; gi-  
zarte ala ta ameslaria, orregatik etxean anairik  
billatzen ez badu, naigabetu egiten da; jolase-  
ra ko ta bizitzarako lagunak nai ditu. Onela izan  
bear du gaiñera, bestela bakarrik azten danak ez  
ditu azkortzen, bear ainbat, adimenaren bizkor-  
tasun eta bere joerak. Bera baiño aundiagoekin e-  
ta txikiagoekin, azkarragoekin eta tontoxeagoekin  
bizi ta azi izan danak bai ederki azkortzen ditula  
bere nolatasunak.

**IRUGARREN AGERRALDIA.** Gaztearoa. Geme-  
lli'ren ustez, manifestazio onen karakterak aue-  
txek dira: adiskidetasun ta askatasun nai.  
Adiskidetasunari buruz zerbait esan dut  
lenago ta leen esana naikoa izango da. Orain, ler-  
ro gutxitan bedere, askatasun-problemari buruz jar-  
dun bearko.

Umeetako errebelioa afektozko jantziare-  
kin azaltzen da. Koskortuagoen errebelioa, berriz,  
adimenaren osotasuna beregan sentitzen dualako i-  
zaten da. Bakarrik ere naikoak ba-dirala sentitzen  
dute ta orregatik beren gaiñekoengandik baztertu  
egiten dira: ez dute aolku ta lezio bearrik. Bi-  
zar-aroan zarrago ta edukalarien ulertu ezagatik  
baztertzen dira. Naiago dute bakarrik bizi nai

dutena egiñez, legerik gozoena legerik az eukitzea dutelako ta onela beren naia egitea. Baiña beste arraoieren bat ere ba-dago oraindik: libertadea, askatasuna alegia. Gazteak auxe du maiteena: libertadea. Eta libertadea bearrezkoa da edukazioan; persona bat ondo osatzeko, askatuta egon bear du, zerbait beñik bein, bestela automata bezela izango da, iritzi propiorik gabekoa.

Baiña, mutikoa, ta bizarduna ez dira ondo ibiltzeko gauza. Zergatik nai izaten dute orduan libertadea? Begira, baloreen erlatibutasunagatik. Aurra, mutikoa ta bizarduna ez dira gogai edo konzetu bat baliatzeko ta idea bat bestea baiño geiago maitatzeko lain. Barruan daukaten joera ezezagun baten atzetik dijoaz beti ta egin-kizun guztietan askatasuna sortzeko lan dagite eta dana bere gustoen araura. Agerraldi guztio-tan eta gaztearoan ez daukate oraindik bizitzaren perspektiba garbirik eta onekin esplikatu ditezke gauza asko.

Mitikotan, askatasunerako leiadura edo aspirazio illun bat besterik ez da agertzen. Gaztearoan tinkatzen da leiadura au ta beti bakoitzak bere personalidadea gordetze-arren. Gazteak onegatik nai du askatasuna, bere nolatasuna sendotzearren eta beste guztiak aintzakotzañ artu dezaten, so egin dezaioten. Ta jokaera onek manifestazio polit bat jartzen digu begien aurrean: askotan bere askatasunatzaz antzi egiten dala dirudi, gizarteko gizasemeen alde askatasuna eskatzeko. Beste manifestazio bat zera da, aitarengandik baztertze joera ta naia. Bestaldetik aitak, demearen jabe dala ba-daki eta emendik sortzen dira etxean istillu koxkorrak, batzutan agirian eta bestetan izkutuan.

Itz bitan: gaztea edozein zalapartaren atzetik dabil beti, askatasun billa. Orregatik biurria ta naigabetua izan oi da, zergatik eta zer nai duan ere jakiteke. Eta aldi au gazte guztiak igarotzen dute, pasaizo ontan pasatzen ez dana ez da guztiz normala izango.

#### V.- ERLIPIOZKO SENTIMENTUAK.

Gure fedeak eskatzen duan siñismena artzeko personalidade oso-

tua euki bear da. Ain zuzen ere, siñismena artze-ko adimenezko ta borondatezko egintza osoak bear dira. Baiña erlijiozko sentimentu ontan berezko zerbait ere ba-dago. Puntu auek gogoan ditugula, ikusi dezagun nola azten dan umegan erlijiozko sentimentua.

#### LENENGO AGERRALDIA.

Amar urte arte.

Nork ez du ikusi aur bat, lau edo bost urteko aur bat, begirune eta sumetasun aundienarekin belaunikaturik errezatzen bezela? Ba, au erlijio-tasun joera garbi bat daukalako da, ez adimenak lan dagialako, adimena askoz geroago azaltzen da. Agerraldi ontako erlijiozko bizitza, bere egozentrismuaren eskutik dabil eta orrela alaitasunaren eta bildurraren erdian zalantzan dabil. Lenengo urtetan erlijiosoak aundiak dira beretzat eta bestaldetik misteriodun xamarrak.

Adimenaren lana azten dijoan eran, Jainkoa ta bere tronua familikoago ta gertuago sentitzen ditu.

#### BIGARREN AGERRALDIA.

Bizar-aroko estutasuna. Aurrerago ere esan dugu eta emen ere aita-tzea ez da gaizki egongo: bizarduna bera bakarrik naikoa dala uste izaten du, orregatik zarragoak edo gainekoak ematen dizkien gogoai edo konzeptu guztiak oinperatuko lituzkete al balute; erlijio gauzetan ere berdin gertatzen zaio, ikusi ta sentitzen ez duana ez du ondo artzen. Estutasun gogorra da, baiña Jainkoari eskerrak denpora gutxi-koa. Dana konturatu eziñekoa biurtzen zaio bizardunari, ez du ase betetzen ezerk eta bere buruak ere lanak ematen dizkio ta gero erremate bezela goibeltasuna eman arazten dieten beste milla gauza inguratzen zaizkio. Ezagutzen ez duan munduan agertzen da eta beti galdera au bere barnean: Zeiñengan jarriko dut uste osoa ta zeini siñistuko diot? Ba ote dago munduan neri lagundu dezai-dakenik? Beraz, gazteak laguntza bat nai du, laguntza maitekor bat, bere egoera aintzakotzat artuko lukean persona bat.

Eta problema onen erabakia Jesus'en ikuspena edo bisioa izaten da, Jesus bere jainkozko edertasun ta maitasunarekin. Geroztik, katoliko edo protestanta izan, Jesukristo'ren ideala beregan berriro egiteko nai bero bat sortzen zai-o, batez ere beste gazte batengan birregin da ikusten badu. Une ontan, mutikoak alderdi aktibua artzen du erlijiotik. Orregatik, dogma edo sinistu bearreko egietan lan egitea etzaio batere gustatzen.

Dogma guztiak ontzat artu eta kito, ortik aurrera ez ezer jakin nai gai ontan. Kontrarioz, gizarteko ta moraleko legean artzen ditugogo biziz, orregatik inñolaz ere perfekzioko elburu bat artu ta lortu nai du gauza guztien gainetik. Edertasun santu batekin betetako ideal batek indarrez bereganatzen du gaztea ta onek ilusio sutsuenarekin bere egiten du.

IRUGARREN AGERRALDIA. Gaztearoan. Baiña gazteak ez dauka errealdadearen konturik eta oztopo askoren aurrean bere egiñalak auts egiten dirala ikusiz etsi egiten du. Eta era berean elizkoiak dirala aitortzen dutenak esamiñatuz, ikusten duanean beren eginbearrak ardurarik gabe egiten dituztela eta oraindik okerrago dana elizkoi diran oiek bere buruak engañatuz dabilzala ikustean, desilusioz betetzen dira. Beste askotan, munduko gobernu asko gizon gaiztoen menpean daudela ikustean ere arrituta gelditzen dira.

Desilusio onegatik leen maite zuana baztertu egiten du, leen lilluratzen zuan ideal arek amorrazioa ematen dio. Orain erlijioiko problema au adimenaren argiarekin aztertu nai du, argi orrekin ikusten duana bakarrik eta ezer ez geiago. Zientziz billatu nai dana? Baiña gazteak ez dauka preparaziorik, ez dauka metodurik eta onela zer egingo du? Ezerez. Orregatik, lenengotik dana galtzeko zorian jartzen da, baiña borondate onez ikasten badu, zientzi-gose orretzek berorrek erakusten dio adimenaren argia ez dala ezer, gizonaren aktibidadeak berez ezin ase ditzazkela bere biotzaren deseo eta nai guztiak. Orduan Jainkoarengana jotzen du berriro eta xume, apal artzen du giza-goitiko jakintza ta pozik gelditzen da gauza guztien gainetik Jainko maitalearen seme da-

la sinisten duanean.

VI.- JOMUGAREN AGERTZEA. Mutikoak ez dauka idealik, ba dakizute zergatik? Bai, bada-kizute danok, baiña nik esan egingo dizuet berri-ro emen: bizitzaren ajolarik ez dualako oraindik mutikoak. Geroxeago, amairu amalau urte dituan-ean, sortzen zaio ideal edo jomuga bat, baiña el-buru onek gizonaren fase ontako karakterak dauz-ka, eta karakterik nagusiena subjelibismua nola dan, bizardunaren ideala ere subjelibua izango da. Garai ontan oraindik ez da ezagutzen erreali-dadea bere izatez dan bezela eta momentu ontan eratzen diran idealak fantasi beroak ezagutzen duan errerealidadearen arauz eratuak daude. Orrega-tik afektotzko bizitza bero eta gairneztuagatik e-ta bizitza orri derizkionez, bizardunaren idealak beroak, sutsuak izan bear dute nai ta nai ez, eta era berean arrigarriak eta izugarriak alde guztie-tatik. Ideal auen karekterik nagusienak auetxek dira: pentsatu eta gero kemen guztiz jarraitzeko artu duten jomuga ori, ezagutzen duten persona batengan konkretatzen dala. Gairnera, ideal oiek artzean, biotz barruan sentitzen dute biarko e-gunean jama onekoak, bizitzea merezi duten idea eta gauza aundien zerbitzari eta onrrauak izate-ko ametsa; amets onek asko kilimatzen ditu.


Ala ta guztiz ere egizko idealik ez dago mutikotan eta bizardun garaian. Personali-dadea eltzen asten danean, eta bizitza benetan artzen danean etorriko da egizko jomuga. Garai au gaztearoa da. Eguneroko bizitzaren busti al-dietan eta gizonen mixeriak ikusiz, idealismu bizi-egiak itzali egiten dira bein juizioan sar-tzen danean, aurreko urteetako idealak berriro, orain ba-dakilako idealak legundu egiten ditu. Ikusi du ondo asko ideal oiek ezin ditezke-lortu erabat eta eskuratzeko al dugun egin bes-terik ez daukagula, begien aurrean ondo eukirik ez ditugula mundu ontan erabat iritxiko bizibide osotu oiek. Au esistentziaren errerealidadea euki-tzea da. Orregatik emendik aurrera ideal oiek erregla edo arau bat izango dira gaztearentzat. Beregan eta beraren aldamenean zoriona ta pakea

arkitu nai dituan gazteak, orain erabakitzen asten da nolakoa izan bear duan.

Ideal batek inportantzi aundia euki dezake gizon guztiengan, eta gazteagan beti. Egizko bizitza benetan artu eta bizitza asten duten garai ontan, ideala erregla da, ez erregla illa, bizi-bizia baizik, gazteari indarrak sortzen dizkio araua.

Esnaola tar Anastasio, ofm.

- Arantzazukoa -





# EVSKERAK

## ZERGAITIK BIZI

## BEAR DVAN

"Euskerak bizi egin bear du eusko-gogoa il ez dedin" (Pierre NAERT).

Emen esango ditutanak "GURE HERRIA" (1958, Buruilla) ta "ARANZAZU" (1958, Fasc.8) al-dizkarietatik jaso ditut.

Pierre NAERT Lund-eko Unibersidadean maixukide da. An erakusten ditu Iparaldeko izkuntzak eta "Lingüística General" deritzana. Aurreko udaran mentxen egon zan, Euskalerrian zear zebil-lela. Bera izatez Prantzitarra da, baiña, ogei urte ba-daramazki Suezian.

Arrazoi sakonak ematen dizkigu, euskeraren alde, berari dagokion aldetik, linguistikaren aldetik alegia.

Askotan, euskeraren alde gure arrazoiketak ez dira, indar osokoak. Ez diegu bear aiñako oiñarririk ipintzen gure arrazoiei. Orregatik dira kategori txikikoak. Orrek ez du esan nai eragin indarririk ez dutenik. Baiña sakonagotik jo bear genduke. Sakonago ta zabalago.

pierre Naert bera orain ari da munduan diran izkuntza txikidn alde idatzitako liburu bat bukatzen. Liburu ortan azaldu nai duan tesis-gaia Sueziatik bialdutako eskutitz ortan ageri zaio.

Izkuntza da gure pentsamentuak eta go-etak agertzeko biderik bakar eta altsuena. Lin-

guistikaren egitekoa da izkuntzen sorrera, aldakuntzak, eta batez ere pentsakerakin dituan artu-emanak arkitzea. Linguistikak edozein izkuntzaren berri eman dezaiguke. Noiz sortu zan. Nun eta nola. Ondorengo aldaketak, eboluzioa. Ingu-rukoengandik zer itz edo esakera eta gainontzeko izkera kutsu jaso dituan. Gogoetak agertzeko zer aberastasun duan, eta ab. Izkuntza bat zatitu eta askatu, eta giza-gogoarekin zer relazio daukan ikusi: orixe da linguistikaren egitekoa eta lantegia.

Linguista batek estimatzen ditu gaur geiena erri txikietakoa izkuntzak. Jendeak beti errexenera jo oi dute. Linguisten arazoetik oso urruti ibilli oi dira beste gainontzeko geienak. Orregatik naiago lukete zenbaitek euskera erabat galduta balego. Bi izkuntza ikasi bearrean batekin gelditzea askoz ere errexagoa baida. Esate baterako espainera edo frantsesa ondo ikasi eta euskera erabat baztertu. Ez gorrotoz, bizitzarako baizik. Bi maleta eramanean bearrean, bat bakarra eramateak neke gutxiago baidu. Gaiñera euskera ez omen da gauza, zenbait gogoeta sortu ta azaltzeko. Baserritarren izkuntza bat besterik ez omen da. Euskeldunoi erdera erakutsiaz mesederik aundiena egiten omen digute.

Frantsesa edo espainera izkerak dira, euskera berriz izkelki bat besterik ez. Amaika olako sarritan entzun bear izaten dugu. Gai aurretan linguistek geienetan astakeri galantak entzuten dituzte.

Edozein pentsakerak, alik eta gutxien landua izan arren, izkuntza bat, espresio bat, azalbide bat eskatzen du. Biak batera dijoaz, gogoia ta mintzoa. Biak alkarren mendeko dira. Izan ere ez dago izkuntza baiño aurreroko pentsakerarik. Naiz-ta giza-pentsakera kaxkarrena izan, une berean ba-du izkera bat, bestela ez dago pentsamenturik. Orregatik len esan duguna, izkuntza dala pentsamentuen agerkeria alegia, eztago ain zuzen esana. Pentsakerak eta izkerak gauza bat bera azaltzen digute bi aldetatik. Buruan sortzen ditugun gauzen ideak, irudiak azaltzen dizkagu izkuntzak. Baiño biok batera ari dira lanean. Izkuntza bakoitzak gizonaren gogoetak aditzera

emateko era berezi bat du. Eta ori orrela gertatuko da beti, izkuntza diferenteak dauden bitartean.

Linguistikak ematen digu erakusten auzerik ezin dezake esan izkuntza batzuk, bere aundiorkian, beste batzuen aldean nagusiago eta geiago diranik.

Baiña orain dator linguistikak erakusten digun eta euskaldunoi bear bada oso arrigarri izango zaigun erakuspen baliotsu bat: GEIENETAN, ANTXIÑAKO IZKUNTZAK, ERRI TXIKIETAKO IZKUNTZAK, "IZKELKIAK", GEIAGO DIRALA. Jakiña, konparazioak egin ditezken neurrian, puntu batzuetan alegia -baiña askotan zer ikusi aundia daukate xeetasun oiek-.

Izkuntzen gorabera auek ikasi ta erakusten jardun diranak gutxi ditugu oraindik. Baiña oriarren, ba-dugu bat, arazo auetan fama aundikoa. Erakuspen oiek tesis-gaitzat lortu dizkiguna. Benjamin Lee WHORF, amerikarra jatorriz. Zoritxarrez oso gazterik il zitzaigun, 1941 gn., 44 urtez. Bera ilda gero argitaratu dizkiote idatzi utzi zitun "Ensayoak" 1956 urtean, "Izkera, Pentsakera ta Izakera" tituloakin.

Etorkizunerako izkera bat bakarra nai dutenak, gezurrezko ametsetan dabilta eta ala bearrez ori lortuko balute, GAITZIK AUNDIENA EKARRIKO LIOKETE GIZA-GOGOARI.

Egun batean mundu guzian inglesa bakarrik itzegitera iristen bagera, gure kultura zeoro urritu ta pobretu egingo da. Erri txikietakozkerak galtzen badira -euskera ere bai- mundua pobretu egingo da kultura aldetik. Beti gauza berberak ikusi ta entzuten aspertu ta nazkatu egin oi gera. Esate baterako, ez legoke turismorik munduko lurralde guztiak berdin-berdiñak baliuz.

Whorf-en idaztietan ameriketako indioen izkuntzetatik artutako ejemplo ugari agertzen da. Izkera oiek ikasten jardun baitzan batez ere. Esate baterako, "hopi" izkuntzak "argia piztu du" esateko "rehpi" itza naikoa du. Berak dionez, geiegizkorik esan gabe, "hopi" izkuntza inglesa ta beste mintzoera zabalduenak baiña gauzago izango omen da "teoria de la relatividad" deritzan ori ager-

tzeko.

Whorf jaunak artu zitzakean adibiderik ugari euskeratik ezagutu izan balu. Esate baterako "etxerainokoa" erderara itzultzeko itz auek bear dituzu "yendo hasta la casa misma", ("en allant jusqu'à la maison"). Euskerak itz orrekin ez du aditzaren jarduna agertu nai, gaertakizun bat baizik. Aditzaren jarduna agertzen digu itzulpenak. Euskeraren xeetasun asko itzultzeko ez da gauzaaskotan erderazko aditza, oso aberatsa izan arren.

Munduak ez du ezer irabasten erri txikitako izkuntzak galduaraziz. Galdu berriz asko oiek erabat baztertuz. Izkuntza aundi bakar bat mundu guztian jabetuko balitz, ez liguke ondasunik ekarriko, kaltea baizik, GOGOIA IGERTUKO LIGUKE, BURUZ ASMATUTAKO ASTAKERIRIK AUNDIENA IZANGO LITZAKE.

Giza-gogoak ez luke aurrerapenik aterako euskaldun batek bere euskera utzi ta erdera bakarrik artzekotan. Besteraka berriz, asko irabazi dezake kulturak, euskaldunak bere pentsakera ta gogoetak euskeraz sortu ta azaltzen badizligu. Gogoeta berriak izango baitira oiek.

Gaurko munduan indarra dago nagusi, kultura ta jakintza sailletan ere. Txikien eskubi-deak ez dira gordetzen. Gelegikeri orren kontza joateko ez dago bide bakar bat bestrik: kultura berezia berengan duten erri txikitako izkuntzai eutsi. Arazo auen ardura dutenak egin bear dituzte alegiñak erri txikitako izkerak zaindu ta gordetzen, al dan bidez eta organizazioz.

Euskeraren jatorriari buruz oraindik ez da erabateko iritzi osoa asmatu nere ustez. Tajuzkoena Kaukasiko izkerakin antza billatu nai izan diona da, noski. Izkuntzen arteko senidetasuna arkitzeko, aurretik asko jakin bear da bien arteko iztegia eta joskeran eta morfoloji saillean zer antza duten. Dana dala izkeraren jatorriaz, auxe artu dezakegu egizkotzat: oso berela kutsatu zala Indo-Europear izkuntzakin. Esate baterako, "argia" itza latiniñaren erroetan ikusten dan "argentum" bera da, dirudinez.

Euskera eriotzetik atera eta bizirik

iraun dezan bearbearrekoa zaizue literaturako izkera bat osatzea, Bestela ez dezute beiñere gauza zuzenik egingo. Gipuzkoa ta Lapurdiko idazleak artu ditzakezue oiñarriztat. Derriorezkoena da erriak ez dezala galdu euskera, bestela arenak egin du. Erriak jarrai dezala eusereaz itz egiten, ikasi dezala irakurri eta idazten. Ori da bearrezkoena. Orregatik, idazten dana izan dedilla al dan aiñean erriaren euskera bera. Erriak ulertzen ezpadizue euskeraren bizia galdu da. Idatzitako liburuak eta orriak ortxen egongo dira liburutegietan gordeta, pipien janari gizaldiz gizaldi.

Euskeran sartu bear diran itz berrietaz bi jokabide arti ditezke: erri batzuek griego ta latiñetik datozen itz ezagunenak batere kezkarik gabe artzen dituzte; baiña ba-dira beste zenbait ori bera egitea gogoko ez dutenak. Euskerak errextasun aundia dauka beste izkuntzak eskeintzen dizkioten itz berriak bere erataro moldatzeko.

- Migel Unamuno-k, Bilbo-ko idazle ospetsuak, bera euskalduna izan arren auxe esan zigun: euskera berez eta derriorez eriotzera galduta dagola. Zearo zaarra baida, ain antxiñakoa ta oraingo izkuntzekin antzik ere ez duena. Ezin du oraingo kulturaren mamia azaldu. Beraz, ez dauka beste biderik: atzera jo ta iltzeko etsi.

- Ori esan zuenak etzuan nere ustez bear aiñako dokumentaziorik. Erri asko dira beren izkuntza bereziak dituztenak. Eta Aien izkuntzak oraingo izkera aundi auen ondoan oso diferenteak izanarren, egoki moldatzen dira oraingo kultura-sailletara. Or daukatzu Feroe-tarrak. Ugarte oietan bizi direnak ogeitamar milla besterik ez dira. Ori arren eta gaiñera, Dinamarka-ren mendean egonarren, beren izkuntza bizirik daukate. Eskolatan izkuntza ori erabiltzen dute. Beste erriekin artu-emanetan asten diranean, jakiña, ingles-a edo danes-a itz egin bearko dute, baiña "etxean" beti beren izkuntza. Beti izango da erri txikia, baiña mundu guztiko izaritasunean pitxi eder bat.

Euskerak arrisku aundia du betiko iger-

tuta gelditzeko, museo-gai bat izateko. Berpiztu egin bear da, eta eguneroko bizitzan erabili.



Eragoipenak kentzeko, errexenera jotzeko, euskeraz idazterakoan, erabat kendu bear zenituzkete "l" ta "r" tilde-dunak. Idazkera orrek ez du batere alderik. Orrek ez dio emango euskerrari berezitasunik.

Nik nai nukena auxe da:jendeari erakutsi eta ikusarazi erri txikietakoz izkuntzak gorde egin bear ditugula. Ortarako nabil idazten eta itzaldiak ematen. Gaiñera "Lagunbatzar Internazional" bat sortu nai nuke erri txikietakoz izkuntzak zaitzeko. Izan ere jende geienak, ez baidira konturatzen nolako aberastasuna galduko genduken izkera txiki oiek danak baztertuta.

Musikarekin gertatzen dana jazotzen da emen ere. Dana berdiña balitz, zearo aspertuko ginduzke, baiña danetik dagola, ordun edozeiñetara jo diteke, norberak gustoko duanera. Orixe gertatu zait neri. Iparaldeko errietatik natok eta emen gauza berri asko aurkitu ditut: zuen izkera ederra, zuen kantu ta bertsolariak. Baiña baldin euskera galduko balitz, kitto! Joan dira emengo kantak eta euskal-folkloreak.

Azurmendi'tar Juan.ofm.

-Arantzazu'koa-



# ALKAR·IZKETA

# ILLOBIRA BULTZAKA

- Guk eukera il? Gu euskera iltzen ari gera-  
la? Nork esan dik iri orrelakorik? Esan, esan errez  
egiten dituk orrelako oiek: arrazoirik eskatzean kon-  
tuak...

Onelatsu erantzun zidan, amorru biziz, ezta-  
baida bero batean, orain gutxi lagun batek. Gezurtxo  
batekin baretu nezaken nere eztabaida-laguna; baiña  
nik erantzun bear izan nion. Ba-dakit lantxo onek -la-  
gun ori bezela- norbait baiño geiago zauritu dezakena;  
inildu egingo aal naiz, ordea? Ez, euskerak bestela es-  
katzen duela uste baidut. Irakurle, adiskideki itz egin  
dezagun, Terenzio-ren ura beteko bada ere: Veritas odium  
parik.

Euskera illobira bultzatzen ari zaizkigu zen-  
bait euskal-idazle, nai dan borondate onenarekin bada  
ere. Borondateak egiaren serbitzari izan bear du eta  
edozein ezbear zital erakarri dezaiguke bere aurka  
dabilenean. Euskal-idazleok egin -eta egiten- ditugun  
burugabekeriak tamalgarriak dira benetan... Euskal-jau-  
regia edertu ta bikaindu nai izan dugu, eta zeruraiño  
jaso dugu (goragi ez ote?); baiña barrua txukun eta  
garbi gorde dedin, biztanleak -euskaldunak- uzatu  
egin ditugu, eta jauregi dirdaitsua museo biurtzeko as-  
moa artu... Ez aal da au negargarria? Euskaldun guzion-  
tzat babes-leku zan eta sukalde epel izan ziteken jau-  
regia, museo ixil eta otza biurtzera goaz orainarteko  
bideetatik. Euskera-jauregian ez dugu antrixiako irudi,  
arri, ezur eta abarrentzako ikusleku txukunik bear, ez;  
jauregi-kolkoa bizitzas, lantegiz, laboratorioz, jakin-  
tzas bete bear dugu: bizitza, bizitza bear da.



Izkuntza zer da? Lagunurkoari gure barnea erakusteko daukagun bide bat eta bideetan egokien eta errezena. Au ba-diteke perogrullukeri bat izatea; baiña, arren, ez dezagun aaztu. Ori da izkuntzaren leenen jomuga, ortarako sortua baita. Istoria-zear izkuntzak berezitu egin zaikigu. eta erri bakoitzak. eboluziñoa-lagun. bere erritasun ta berezitasunak sendotu dituenen, izkuntza ori bere tu egin du: erritasun berezi ori itsatsi dio bere izkerari. Onegatik, izkuntzen jaiotegunean oinbeste eta ain garbi ez bazan ere, gaurko izkerak bi elburu ditu: gizonaren ideak adierazi ta erriaren nortasuna argitaratu. Baiña izkeren leenbiziko elburua gizonaren zerbitzari izatea da, gero erriarena. Gaiñera, leenengo eginbear orri gaiñki erantzuten badio, gizonak laga egingo du izkuntza, ta orduan ez da erritasuna agertuko duen izkerarik ere izango. Izkuntza bat gordetzeko, ez dago berak gizonari inguratzen dion praktikutasunari begiratzea bezelakorik, Beraz: IZKUNTZAK EZ DU BALIO ABSOLUTURIK; berez ERLATIBUA DA. Izkuntza gordetzeko bere jasoiñak (praktikotasuna, kultura) sendotu ditzagun, ez erromatizismuz (aberzalekeriz?) argaldu ta beratu.

Premisa auei berez darie beste ondore au: EUSKERA KULTURAZ BAKARRIK SALBA DEZAKEGU, ez da bete biderik. Ta kulturak zer esan nai du emen? Kultura, bizitza-praktikotasuna da. Literaturan bi talde bereizi ditzazkagu: gizon konkretuari begiratzen dion literatura-sailla, ta erritasuna sendotuaie ari dana. Leenengo taldean jakintza-liburuak-eta dauzkagu: Deretxua, Mediziña, Filosofia ...; auek praktiku izan nai dute, gizonaren bearrak ase az. Bigarrenen, berriz, literatura utsa sar dezakegu: ertia egin nai du onek, batez ere; baiña erri-nortasunaren seillua idazkietan ezarriaz: es da gizonaren zerbitzari, erriarena baiño. Jakintza-literaturak eguneroko gizonaren bearrak osatu nai ditu; literatura-sailla, ordea, edertasunari begira lilluratzen da. Ura praktikua da, au interesgabea. Eta ez dago zer esanik: gizonak, geroz ta geiago, Praktikotasuna nai du leenen.

ERRITAR EUSKAL-LITERATURAK EZ DU EUSKERA SAI-  
BATUKO, geienez ere pittin bat irauaraziko du. (Ta au  
esatean, erriarentzat idatzi oi dan literatura uts ori e-  
san nai dut). Zergatik? Gizartea praktikutasun ta mime-  
tismu batek gobernatzen dutelako. Praktikutasunak: egu-  
nean baiño egunean, gizartea kulturazaleago egiten ari  
da, baiña kultura ori euskeraz -ez dut oraindik ikasi e-  
saten- erabili aal ez badeza, gai oietzaz jardun nai  
duenean, derrior erderara jo bearko du. Medikua bere ja-  
kintzaz mintza nai danean, erderaz jardungo du, eta ber-  
din abogadua, ingenierua, filosofilaria t.a. Erria ere  
berebat: zenbat ikasiago izan, erdera geiago bere ezpai-  
ñetan, eta binbitartean euskera bazterturik ta mandiora  
bidean...Mimetismuak: gizonak beti itxura onez jantzi  
nai du bere burua. Gizarte-beeko mailletan daudenek, e-  
rritarrek, goikoen -itxura onekoen- jokabideak segi nai  
dituzte. Izkuntzak, berriz, berez ez du izen on edo tra-  
rrrik, ori mintzatzen dutenek ematen diote. Beraz goikoek  
-ikasiek eta aberatsek- erderaz itz egin badezate, ez  
dite oiek euskerari prestijiurik emango noski, ta azke-  
nik erritarrek -kale ta baserritar- ere ejenplu ori ja-  
rraituko dute.

Onela, bada, kulturagabeko izkera illobira do-  
a bear-bearrez; kultura sendo bat daukana, berriz, beti  
jeikiko da arro. Begira Canadá'ra: atzerritar denak be-  
ren izkuntza galdu ta inglesera artzen dute; baiña Pran-  
tzi'tik doazeneri etzaie ori gertatzen, kultura aberats  
bat duen prantzes-minori bat aurkitzen dutelako. Filipi-  
nas'en, berriz, ez da oraindik gaztelerazko kultura sen-  
dorik, ta inglesera geroz ta indartsuago doa...Kultura  
jori bat sortzen ez badugu, erri-literatura aberatsa i-  
zanarren, euskera il egingo zaigu. Lan egin dezagun goi-  
tik beera, ez dago beetik gora egiterik-eta.

Ta orainararterakoan zer egin dugu kultura-bide  
ontan? Ezerez, esango ote dut? Ezer gutxi beintzat bai,  
oso gutxi. Ta lan au nola egin da? Nere ustez -eta ez  
naiz bakarrik- gaizki, oso gaizki. Ez dut, au esatean,  
idatzi dan dena kondenatu nai, ez, joera berezi bat du-

ten idazki batzuk baizik.

Euskal-idazleen artean, gazteongan batez ere, gertatu dena au da: kultura egiteko preparaziorik ez dugula. Ba-gehiekien euskera, ortan bear bada maixu giñan -maixutza ere erlatibua baita-, orregatik euskera, euskera ta euskera eman dugu. Besterik ezean zer egingo genuen, ba? Baiña au ezin ditekera da. Zenbait idazleok euskera purka bat ikasi eta idazteko prest geundela uste izan dugu. Zer idatzi, ordea? Euskera? Onatx izkuntza-formalismua deitu izan dana. Formalismua, berriz, literaturan egin ditekera pekaturik astunenetakoa da: euskera euskeragatik erabili; izkuntza absolututasunez jantzi dugu orrela. Okerrena dana, irakurleek ere berdintsu pentsatzen dute: euskeraz irakurtzean, ez ditekera euskera ikasteko baiña izan, alegia. Aurreko batean ezagun batekin topo egin nuen, eta ni YAKIN'etzaz mintzatzean, onela galdetu zidan: "Ta zuen errebista ori EUSKERA IKASTEKO aal da?" Etzitzaion nunbait euskal-errebista batek bestetarako balio zuenik luruan sartzen.

Nola sortu dezakegu euskal-kultura au? Nolako euskera bear genuke lan ontarako? Ona emen korra. Gaiak GAURKOAK eta euskera ERREZ-ERREZA. Zenbait euskal-liburu klasek idazle geiago dituzte irakurle baiña... Parregarria... Hone ustez, euskalzaleentzat idatzi oi da eta euskaldunok ez dugu ia euskal-kultura idazlerik: euskera, alor ontan, euskalzaleen monopolioa da. Euskalzale auk izkuntza-sibarita batzuk baiña ez ditugu: berentzako bakarrik izango dan euskera aparteko bat nai dute. Ta "apar-kokeri" onekin ez dago euskal-kulturarik eraikitzerik. Kultura egin nai badezagu, irakurleak ugaritu bear ditugu leenen: ta au lortzeko euskera ERREZA bear da: erreza, erreza... Oraintsu euskal-idazle batekin nengoela, eskuartean zeukan errebista batetzaz, irakurtzen zuen galdetu nion: "Ez, egia aitortuko diat -erantzun zidan-, ez bai-tiat ulertzen". Euskera ba-daki, ta idatzi ere ondo txukun egiten du; gaiñera karreraduna da, ta errebista arek eman zezaizkioken gaiak baiña goragokoak ere uler zitzazken, ta ala ere etzuen ulertzen "euskal-idazle" aiek

ziotenik... Baiña etzan orretan bukatu; zirikatu naiez zera esan nion:

- Ezin ditekena duk ori. I euskaldun eta euskalzale, beste euskaldun askok baiño euskera geiago dakikana, kulturaz ere or idazten dutenen parekoa, ta ala ere ez duk ulertzen? Beraz, idazle oiek ez ditek ongi idazten.

- Ez, gizona, ez. Oiek euskerazko kultura sortzen ari dituk eta euskera ori berria delako ez diat nik ulertzen, -erantzun zidan oso serioki.

- Polita orixe: euskal-kultura egiten ari dituk eta euskaldunek ez dizkitek ulertzen. Ogeitamar -oinbeste?- irakurlek leitutzen duten lanak nola sortu zezakek euskal-kulturarik?

Ikusia dago, ez da aski idaztea kultura sortzeko; irakurleak bear dira orretarako erruz. Ba-dira gerorako lanean ari gerala esaten dutenak ere. Gerorako... emendik 150 urtera izango diran euskaldunentzat...; baiña orduan -binbitartean euskerazko kulturarik izan ez badugu- euskaldunik izango aal da munduan? Orain, gere idazkiokin, irakurleak suspertu ta ugaritu ordez, urritu ta urrundu baditugu, emendik 150 urtera nun aurkituko ote ditugu irakurle oiek?

Oraingo edadekoekin ez daukagu zer egiñik: lendik euskalzale diranek ortan jarraituko dute; baiña euskera baztertu duten 40 edo 50 urtekoei ez diegu euskerratzekorik eskatuko. Zertarako alperrik itz egin? Gazteongan dago euskeraren etorkizuna; baiña, tamalgarria!, entzun idazle askok zer egiten diguten: euskaldun soilarentzat **ULERGARRI EZ DAN EUSKERA EMAN**. Ortik jarraitu nai badugu, ixildu gaitezen bein betiko, euskerari egungoko mesedea egingo baitiogu. Ixil gaitezen!

Guziori gertatu zaiguna da au: luzatu diogu euskal gazte jator eta borondate oneko bateri euskal-liburu kulturadun bat, eta bereala borondate on orrek pot egin du: berriro itzuli egin digu liburua. Zer gertatu zaio? Ez duela ezer ulertu, ta onelako liburu bat zertarako irakurri? Oiek ez dira berarentzat idatziak,

euskal-kultura egiten ari baitira (!?) idazle oiek. Eta zenbat eta zenbat onelako...Orra or nola urritzen ditugun euskal-irakurle gazteak.

Kultura-praktikutasunak bakarrik salba dezake gure euskera, ta idazkera ulertezin eta nekezak nola emango ote dio praktikutasun ori iltzear daukagun izkuntzari?

Laburturik: kultura bear dugu; ontarako irakurle ugari bear ditugu, ta ez dago irakurleak ugaritzerik, zenbait idazleen euskera-bidez.

Ba-dakit zer eta nola egin bear genuken galde-tzen duzuna; baiña ortarako ez da emen lekurik, ia beste batean...

Euskal-idazle: IXIL ZAITTE, zure euskera odeitarrez, euskal-irakurleak urritu, ta gure izkuntzari semeak kentzen saiatu nai baduzu. Arren!!!

Intrausti'tar Joseba Ank. ofm.  
- Arantzazu'koa -

"O R I X E" jaunaren eskutitza.

"MEA CULPA" eta "QUOS EGO!"

Anizetxe iaunari

Aspaldiko urteetan, ba-dira ogeita zenbait, maisu-izena eman zenidan, muga-itx edo artikulua noiz ta nola erabili galdegin zenidanean. Orduan ikasle ba' zindudan, orain, maisu-izena ez ba da ere, ikasle-lagun izena merezi dugu biok. Zenbait gauzetan nere maisu ere izan zaiteke, eta ala dirudi, neri oker-ustea egozten didazun zertanbait.

Aurtemin erauntsi zenidanez, -"Ibar"ek ere ori berori esan zidan- euskera idatzian nik omen dut obena nun eta zun sartu izanarena. Ala ote? -Etzait iduri. Nik oraindio nire libururik argitara gabe, Aita Olabide'k erabili zitun Itun Berrian. Asi zaite lenego orrialdetik, eta len-atalean, zun ogeitamabost aldiz arkituko duzu.

Esan duzuketena, orduko nik erabillia nedukala Jesusen Biotzaren Deya'n, eta zanarekin batean ari izan nintzala lanean Itun Berria argitara baño sortzi urtez lenagotik. Nork ezaguten ditu nere lantxo aiek, bakar batzuek ezik, eta olako ondorioak ukan ote dute? Olabidek nere kutsurik bai ote du, Lekuona iaunari ere derizkiona? -Nik arena geiago, nere ustez.

Dana dala, nere errua baldin ba'da, "mea culpa" esatea dagokit. Urrengo liburu-gaiean "Iainkoaren billa", nun eta zituan ipiñi ditut, zori oneko zuen erri orren-tzat, alik eta geiena buruz atzi dezan. Ian ori ez dut egin ikasientzat, batez ere zuek bezalakoentzat. Zuentzat berdin dio garbiago edo zaillago egiñik ere, buruz ongi artuko baituzute, belarriz ez ba'da ere. Gaurko su bezalako artikuluetan ez duzu aurrera arkituko nuan, nuban, nuen, nuben, nuin, niin, noon, non, muun, nun. Batasunaren billa omen zoazte. Anarki aundi ortan zein aukeratu bada? -Orien guzien ama dana: NENDUN.

Nere nendun kuttun au ematen asi nindeken 1923<sup>o</sup> garrenean ere,erri askotan esaten baitzan ordu artan. Bai, Adiskide Berri, erri askotan. Orozko erri aundiskoa da bere baillerakin, eta asi Lezamatik eta Getxora bi-tartean, eta Laukiniz aldera, Txori-erri zaion lurralde ori ba-da zerbait. Ez ote zan Gipuzkoaren erdi bat aña 1923<sup>o</sup>garrenean nendun esaten zaneko lurraldea? Gipuz-gipuzkoa esan nai nuke, ots, Bizkai-Gipuzkoa leku: Eibar, Mundrau, Oñati eta abar.

Zuen erriak ez dula orrela esaten. Zuen erria al da beti lege? Eta zuen belarria? Ni, ongi mintzo dan edo zan erriarekin noa, eta nere belarriarekin. Zer itz ederragorik, bulunba-antzeko mintzoa dun ori baiño? Gipuzkoan ere ez al zan esaten nendun, giputz-erria gaur baiño obeki mintzo zala? Nondik atera duzute gendun, nendun<sup>o</sup>etik ez eta? N:- ni, bakarraren einean, eta g:- gu, aunitzen einean. Ez noala erriarekin? Zein errirekin? Zuek bezain erritar jotzen dut nere burua, ni baiño ka-letarrago baitzirate.

Garai da "quos ego!" esaten asteko. Nork sar-tu ote du burruntzalia nere eltzean,esaterako, San Au-gustiñen Aitorkizunetan, nik nendun ezarri-toki guzietan nuan ipinteko? Noren baimenez egin dute ori? Ez nindagon, bada, urruti irart-okerrak zuzentzeko bialdu nai ukan ba<sup>o</sup>litidate. Ez batere erakutsi ere. Beste zenbait gau-zatxo ere ukitu ditidate. Bat edo bat ari da, nere ia-torritzkoa ta argitara emana bekaldetzen. Misalean... egia esan, baimena eskatu zidaten Garikoiztarrak aien itz eta esatera zerrenda bat nereen orde z ipini nenzan. Gogortu nintzan politikxo ere ezezkoan, eta izenik ez nendun eman nai liburu ortarako; baiñan, azkenean, pa-kearengatik, txuri egin nendun. Au "mea culpa" da; ez aiena.

Ez al didate nere euskera egiten utziko? Zer jauntxokeri da ori? Nik ez diot iñori agindu nere antze-  
ra egin dezan. Egin baldin ba<sup>o</sup>dute, ta ez gutxik, diote-  
nez, oiek atera naute jauntxo; ez nik nere burua egin  
dudalako. Euskaldun Agurgarri batek onela idatzi zidan  
Ameriketara, euskera lardaskazale batzuk beren Akademia-

rekin gure buruzki nabarmen asi ziranean: "Venga usted y dicte". Ez dut olakorik egiñen, baiña nere euskera, bai. Eta irar-legerik baldin ba'da, urrengoan auzitara deituko dut olakorik egiten didana.

"Quos ego"! Au da: "Etorten banizaizue!" Ni-zaizue ez da nik asmatua. Eunka aldiz entzun diot, batez ere azken bi urte oetan arrebari, aurreri akar egitean: "etortzen ba'nizaizu, ba'nizaik, ba'nizain", bartzuetan t'rekin, besteetan t gabe. Zertako or t ori? Doala antzarak perratzera! Gaztelu'n ere entzuten omen: -erri batek edo biek ez dutela legerik egiten? -Erri batean baiño geiagotan esan zan, dudarik gabe, ta ari iarraitzen nizaio. Nik Uitzin "etortzen ba'nakik" eta "ba'nakio" neduzkan entzunak. Orregatik erabilli ukan ditut EKIDIN'en ioka-itz oriek IZAN'enak baiño maizago. Eta politago baitira gaurko zuen ZK, TZ orien baiño.

Zertako berritu -diokezu- IZAN'en lengo iokaera, egungo erriak ez baitu orrela egiten? -Orain gaizki mintzo dan erriak, ez; len ongi mintzo zanak, bai. Eta nik euskera polita nai dut, ederra, aurrentzat ikas-errexago dana, -IZA- garbi garbi ageri dala. Naiz esaten duzutenok ( a nahasitxo orrekin), zergatik ez duzute esaten naintzan, naintzala, t.a.? - Izkuntza ez da logika, esaten didazu. -Bai eta. Buru gauza lehenik, bi-oz-gauza urrenik, au da logika ta psikologia; urrena, belarria. Iru lege oriek gertatzen dira izkuntzetan, eta, naiz irurak batean, naiz etatik bi, naiz bakarra izaten da askotan lege. Noiz eta nola. Noiz-nola orietan asmatzen dunari iarraituko zaizkio beste idazleak.

Zuk nai ez ba'duzu ere, IZAN aditza ioka ditekere egun arauz-erara, noizaldi guzietan -IZA- garbi ageri dala. Aditza iokatzean gaizki oiturik gauda erderaz bezala "naiz", "zera", "da" aipatzen. Bakarrekiko iokaera ez ezen, elkarrekikoak ere batean aipatu bear genituke nor-dan bakoitzean, onela: niza, nizaizu, nizaio, nizaizue, nizaie; gira, gizaizu, gizaio, gizaizue, gizaie t.a. Askoz politako zuen natzaizu, natzaio, baiño, ta gure naitzizu, naitzio baiño. Gatzaio, gatzaizkio, ta olako itsuskeriak, doazela Salamankan barna! Eta gakio ordez



gakizkio, zakigu ordez zakizkigu ta olakoak. Oraingoz zira ta gira erabiliko ditut. Etorriko al da garaia ziza ta giza idazteko ere. Niza esateko eskubide ba'dudala iduri zaida onako bertso auskin:

ez dakienak erran lezake  
ni alegera niza-la.

Eta:

etzaut dolutu, ez doluturen  
bizi niza-no, maitia.

Orobat zizaidan, zizaizun, zizaion, &amp. ninzan. ninzaizun, ninzaion, &. Eta abar, eta abar. Iainkoak bizi ba'gaitu, iarraituko gakio gai oni.

Ai, eta itzuli nadin zure -a artara. Nik pekatarri onek, ardura kendu omen dut, batzuek diotenez onerako, besteek diotenez gaitzerako. Jauntxokeria bat eta orrelakoak esateko oitura sartuko ote da gurean, mugaz aindiko aldean bezala? Naiko lan. Alde ontako belarriak ez du ontzat artuko, buruz egokiago ba'liza ere. Gaiñera, artikulua bear du, beste -a bat edo -ra: jauntxokeriara bat, u-datik udara antzera. Oien -a ori gure -i bezala itzaren beraren muiñeko baldin ba'da, beintzat.

Ba-dira gazte bakar batzu, gizaldi berri ontan, euskerari lotsarik ematen ez diotenak; baiña kuku beste lardaskazale oriek! (1).

Abismua, firmamentua, reptila, realidadea, aktibidadea, positibua, negatibua... Zer da ori? Euskeraz ederki esan ditezken gauzak. Lehenik ikasi bearra daukagu filosofia, gero erdera, gero euskera, gauza oriek gurre izkuntzara egokitzeko. Ez da aski au esatea: "Euskeraz ez ditezke esan yakite-gauza asko ta asko"; obe lizake au esatea: "Nik ez dakit gauza asko euskeraz esaten". Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaiean edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu iñongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik. Zer esanen ote luteke Fray Luis biak eta Cervantes'ek, egungo gaztelan utsusia eta aldrebesa ira

kurriko ba lute? Ortara ezkerro, iakingai oriek erabilli detzagun beste edozein izkuntzetan. Ez al zien Fray Luis de Leon'ek erdalduneri baimena eskatu Gaztela'ko erderaz idazteko? Eta ori literaturar! Ez al du Fray Luis de Granada'k Eliz-itzaldi sail ederra latinez? Eta irureun urteko literatura aurretik zutela. Guk gauetik goizera nai dugu egin guzia, eta lanik gabe, alegifnik gutxieneko legean zabartuz. Landu dezagun euskera. Ba-du zura naikoa.

Aztu zizaidan, Anizetxe iauna, zurekin asi ninzala. Iainkoak eman dezaidala bizia "mea culpa" eta "quos ego" esateko. Sartu dezatela burruntzalia, eskubide dute, nik argitara emandakoan, iorratu nai ba'naute; oraindik argitara gabean, begira sartu!

Oinbesterekin len bezain adiskide gelditzen nizaizu.

### ORIXE'k

(1) Kuku = Abajo! Biba Bachenabarre! Kuku Laphurdi!

Oarra: Irakurlearentzat: Naiago nuke tt ordez t barkarra buruz bêra ipintea.

Zuzendariaren oartxoa: ORIXE Jaun orrek barkatuko diguzu zure lana zeure idazkeraz birridatzi ez badugu.

Jakin beza irakurleak: Orixek tildez eman dizkigun letrak onela kopiatu dituguna: ll, rr, tt.

Liburu ta aldizkari berriak.

---

### "ORBELAK"

Onatx gure Kerexeta'tar J. jaunak ("Arantzibia"), YAKIN'en zuzenbidera bidali deuskun lipotu polita. ORBELAK daroa izen-buru. Bere-bereak dira, bere biotzari dariozan zotin beroak. Udazkenean aizeak jolasean dabiltzan orbelen erara, alde batetik eta bestetik, toki guztietan sartu naiean, biotz guztiak olerkari biurtu naian. Orrelakoxeak dira zure ORBELAK: aizeak aidean daroiazan olerki bigun ta xamurrak. Gizonaren biotza berez da olerkaria, pena benetan sarritxoegi biozkada orrek bakoitzaren barruan ittota gelditzea! Betoz ordu onean zure olerkiak euskal kultura egiten ari gareanok, beti filosofi ta teoloji ta jakintza artean aspertu ez gaitezen. Gaurkoz ezin dot bete zure guraria, berriro irakurri bearra dot, danak onenak izan ez yatazan, eta bakarreko idazkitxo batean erantzungo deutsut zeintzuk izan yatazan gogokoan.

### "ZERUKO ARGIA"

Ona nun egun batetik bestera nola eldu zaigun gure aldizkari maitea. Zai ta zai geunden. Baiña argi esan digu bere atzerakuntzaren zergatik: "Zerbaki au atzeratua dator bearbearrezko baimenen zai egon garealako". Beste tankera bat eman diote, gure Aita Kaputxinoak; guziz eraberrituta atera digute, udaberri bat bezela. Urduri daude, ordea, asmatu duten ala ez. Nere iritzia jakin nai izanik, ona: "asmatu duzute", eta ederki asmatu ere. Tipo ori da gaurko egunean geien erabiltzen dana eta geien irakurtzen dana. Guzion lana dala diozute euskera lantzea. Bai alaxe da, guk geurez otoi diogue YAKIN'en arripedun guziei ezagutu dezate-la ZERUKO ARGIA, ain txabelin agertu bazaigu bere amabi orrialdekin, Periodiku tankera ta neurrian argazkiz apaindua eta bi koloretara. Gure asmorik onenak aldizkari orrentzat. ZORIONAK! eta Milla osker! ain txalogarri lan dagizuen Aita Kaputxinoori.

### IPUI SARIKETA (Biarritz-en)

"EUSKAL-KULTURAREN ALDE" deitzen elkargo onek sariketa au antolatzen du, Bilbo-ko euskaldan berri batek, bere eskuetan zabalkiro ipiñi duen diruz.

Sariketa onen baldintzak auetzek dira:

**LENGOA:** -Sariketa ontar sar ditezke gaurtik asi ta aurtengo "Euskeraren Eguna" rarte, Abenduaren 3'gn. arte alegia, edozein eguneroko edo aldizkarian azalduko diran ipuiak. Beraz, ezin sar ditezke sariketa ontan, aurrez argitara ez dan ipuirik.

**BIGARRENA:** -Etzaie ipui auei, luzeran mugarik jartzen, baiña ipuien egille edo biltzailleai adierazi nai diegu umeentzat egoki izatea jaramon berezia egingo zaiela. Beraz, zarrak edo berriak, norberak asmatuak edo beste izkeretatik itzuliak izan, guztiak onartuak izango dira.

**IRUGARRENA:** -Iru sari bereziz sarituko dira artuko ditugun ipuiak: 1'goa, 25.000 (ogeta bost mila) liberakoa; 2'gna. 15.000'koa; eta 3'gna., 10.000'koa. Gaiñera bere esku izango dira epaillak nai ditzaten mila liberako beste sariak ere emateko.

**LAUGARRENA:** -Ipui guziak, izparringo edo aldizkarietan izen-orde edo pseudonimo batekin azaldu bear izango dira; eta argitara emanda gero ipui auek "Euskal-Kulturaren Alde" bazkunera bialiko dira, zuzenbide ontara: 14, rue Lalanne - Biarritz (Laburdi) B.P. Azal batean sartuta eta bertan nun argitara emanak diran adieraziaz. Azal orren barnean beste bat itxia igorriko da, egille, biltzaillearen edo itzultzaillearen benetako izen eta zuzenbidez.

**BOSKARRENA:** -"Euskal-Kulturaren Alde" ko buruzagiak epaillak izango dira ta beren erabateko epaiak onartzekoak izango dira, alabearrez.

**SEIGARRENA:** -"Euskal-Kulturaren Alde" elkargoa izango da sariketa ontan sarituko ta aren liburuan argitaratuko diran ipui guztien yabe.

ARKIBIDEA

Agur . . . . . 3

TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA

Jesus, "Bizitza", Jon Deunaren iritziz - Joxe Austin, Psiotarra . . . . . 7

Izatearen azterketan. - Intxausti'tar Joseba, Arantzazukoa . . . . . 15

Aingeruak Tomas Deunarenean. - Muxika'tar Errupin, Beneditarra . . . . . 23

Mundua betikoa? Asieraduna? - Dorronsoro, Sakramentinoa . . . . . 29

Mesiasgo Berri bat. - Bereziartua, Arantzazukoa . . . . . 35

KULTURA-IAKINTZA-ANTZE

Europako eleiz berriak.- Ulazia'tar Yon, ofm. . . . . 44

Apaizak nora...? - Lasa, Laterandarra . . . . . 50

Maindire Santuari buruz. - Botanz, Karmeldarra. 55

Romano Guardini'ren Estetizismoa. - Anai Santiago, Lasalletarra . . . . . 60

Bizitzaren agerpenak.- Esnaola'tar A., ofm . . . . . 64

Euskerak zergatik bizi bear duan. - Azurmendi'tar Juan, Arantzazukoa . . . . . 75

ALKAR - IZKETA

Illobira bultzaka.- Intxausti'tar J., ofm. . . . . 83

ORIXE'k Anizetxe'ri eskutitz irikia. . . . . 89

Liburu ta aldizkari berriak . . . . . 94

Ipui sariketa (Biarritz-en) . . . . . 95

